

**SAN JOAN GOIZEKO IHINTZAK,
KENTZEN DITU GAITZAK** / 12-13

2021-06-18 OSTIRALA / 778. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM

**Urbasa-andian
otsorik gabeko
40 urte. Animalia-
presentziari buruzko
bi ikuspegi** / 2-4

**Irurtzango
saihesbidearen
aurrekontua
100.000 euro
garestitu da** / 6

**Telekomunikazioei
buruzko ordenantza
onartu du
Uharte Arakilgo
Udalak** / 11

**Igandean Nafarroako
Emakume Master Cup
Pilota Mistoko
finalerdiak jokatu
dira Uharte Arakilen** / 15

**'Los acordes de la
memoria' Josefina
Arregin oinarritutako
dokumentala
mustuko dute** / 22

Otsoak arrandegian bukatu zueneko

Hilaren 3an 40 urte bete ziren Sakanako azken otsoa ehizatu zutela. Urbasa-Andiako natur parkean izan zen, artaldea erasoaz defendatu zuen artzain batek hil zuen. Gertaera freskatzearekin batera, otsoari buruzko bi ikuspegi daude jarraian

Alfredo Alvaro igoa SAKANA

Hilaren 3an 40 urte bete ziren Sakanako azken otsoa ehizatu zutela. Urbasa-Andiako natur parkean izan zen, artaldea erasoaz defendatu zuen artzain batek hil zuen. Gertaera freskatzearekin batera, otsoari buruzko bi ikuspegi daude jarraian.

Urbasa-Andian 1978tik hiru otso zebiltzan. Bi arreak ziren eta bestea beltzaxka. Lau urtetan lauhun ardi baino gehiago hil omen zituzten. Bat hil egin zuten. Luciano Erdoizak bestea zauritu zuen 1979ko apirilean eta haren berri gehiago ez zen izan. Orduetik bi otsoen arrastoa beharrezakoa izan zuten artzainek.

Azken otsoa harrapatzeo 1980an uxaldiak egin zituzten ia igandero. Urbasa-Andiako Larreen Batzordeak antolatu zituen haiek eta 135.162 pezetako (812,34 euro) kostua izan zuten. Gertutik jarraitu zuten animalia. Haietako batean, horma baten atzean zela opatu zuen ehiztari batek ezustean eta harresiaren eta ehiztariaren gainetik salto egin zuen. Zauritu zuen, baina ihes egin zuen. Etxarriarraren ondoko borda Lizarragako Demetrio Igoa artzainarena zen. Tiroak joz, batak bestearengana aldera bidaltzen zuten otsoa. Baina ez zuten harrapatu.

Maiatzaren 13an Garmendiari bi arkume biki faltatu zitzaizkion. Txerriak izanen zirela pentsatu zuen (orduan natur parkean larrratu zezaketan). Maiatzaren 25eko



Luis Lizarraga;
Josetxo Erdozia; Jon Igoa eta
Joxan Maiza. IGOA ARRANDEGIA

eguerdian lau arkume desagertu zitzaizkion Lubierrin. Artaldea izutua opatu zuen artzainak eta orduan jabetu zen otsoa zela. Etxarriarra haren atzetik hasi zen, baina ez zuen ikusten. Artaldeak maiatzean mendira igo zituztene 50 bat ardi hilak omen zituen. Beste batzuk zauritu eta ondoren hiltzen ziren.

Azkena

Garmendiak otsoa hil zuen 1981eko garagarriaren 3an, asteazkenarekin, 13:00ak aldera. Urbasan izan zen, Obatsen. Garmendia, Beltxa txakurra lagun zuela, artaldea txabolara hurbiltzera joan zen, bera bertan gazta egiten ari zela gertu izateko. Izan ere, artaldea txabolatik gertu zuenean otsoak ez zion erasotzen, Obatsen eta Lubierrin, berriz, bai. Eta gauez, edozein tokitatik ibiltzen omen zen animalia. Horregatik, eskopeta zera man eguerdi hartan artzain etxarriarrak.

Artaldea hasi zen begira. Garmendia astigar baten kontra. Txakurrari "atzia" esan. Eguzkia aurrez aurre zuen. Ardiak gogoz marrraka. Pauso handitan korrika animalia hurbiltzen. Sakanan gora. Basurdea? Gero eta gehiago hurbildu. Ehun bat ardi artzainarengana, saltoka, montonduta. Beste arsaldoko bat

ezkerrerantz. Bi saldoen artean mugitzen hasi. 14 edo 20 bat metro. Garmendiak goitik behera tiro egin. Otsoaren inbuluzka. Bihotz aldean, eskuin besoan jaso zuen tiroa. Animalia zutitu. Bospasei metro beherantz; 300 bat metro zuzen. Artzaina bere atzetik, lasterka. Tiroak jotzen. Tirorik ez. Tiroa botatako eskopetako kakoari ematen zion. Lasterka, otsoa, artzaina. Eskopeta zabaldu. 5eko kartutxo indartua. Posta zelakoan zegoen. Pantaloian lau posta kartutxo. Lasterka. Otsoak gaina pasa. Artzaina atzetik. Gainean. Zelaia zuen pasako! "Bruaaaag". Elorri batean. Lauzpabost metrora. Etxanda. Indarrik gabe. Posta tiroak. Otsoa hilda.

Etxarriarraren ondoan Demetrio Igoak zuen bere borda. Gazte batzuk gertatutakoaz gaztigatu zuten Lizarragako artzaina. Land Roverra hartu eta bide malkartsuan barna Obatsera joan zen. Animalia ibilgailuan sartu eta lagun zituzten artzain batzuei erakustera joan ziren. Igoak bordan otsoaren gorpua erekin lo egin zuen. Inork ez kentzeko. Otsoa ikusteko jakin-mina zuten ehun bat pertsona elkartu ziren Lizarragako portuan ostegunean. Handik Lizarragara jaitsi zuten eta goizean estankokoan ikusgai izan zen. Azkenik otsoak Etxarri Aranazko Igoa arrandegiko hozkailu handian bukatu zuen. 13:00etatik 18:00ak arte bi mila bat pertsona pasa omen ziren otsoa ikustera. Artzainak Urbasako Alberto bentan elkartu ziren, ospatzeko. Irailaren 19an, larunbatean, atzera ere, 34 artzain benta berean elkartu ziren. Orduan Larreen Batzordeak Garmendiari 246.000 pezeta (1.478,49 euro) oparitu zitzaion otsoa hiltzeagatik. Eta Erdoziari 50.000 (300,5 euro) pezeta beste animalia bat zauritzeagatik.

Animaliak 105 cm luze, 75 cm altu eta 40 kilo zituen. Heldua zen, baina ez zaharra. Hala jakinarazi zuten Iconako teknikariek. Lau bat urte izan zitzaizkion. Nafarroako Diputazioaren esku gelditu zen animalia, ikertua izateko.



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea - Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika moderna

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



"Abeltzaintza estentsiboa zaintzea gure ardura da"

JAVIER SAEZ DE JAUREGI URBASA-ANDIAKO LARREEN BATZORDEKO PRESIDENTEA
Mendirra azienda igotzen duten abeltzain profesionalak biltzen ditu batzordeak eta gobernuaren aurrean haien ordezkaria da, eta proposamenak egiten dizkiote

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Apirilaren 15etik abenduaren 15era arte izan ditzakete abeltzainek beraien aziendak mendian. Salbuespena urte guztian han bizi diren lau abeltzainak dira.

Abeltzaintza eta otsoa bateragarriak dira?

Gaur egun jende gehiena hirietan bizi da. Abeltzaintza jasangarritik gaur egun bizi garenak duela 20 urte baino askoz gutxiago gara. Hala ere, oraindik ehun onargarria dago. Beste toki batzuetan "otso lurraldea, abeltzaintzaz bizi ez diren pertsonen eskualdea da". Bata bestearekin, zenbait neurriekin, bateragarria dela badirudi ere, nire ustez ez da bateragarria. Otsoak, beste piztiek bezala, ez du galtzeko zorian egon behar. Horretarako, egin beharrekoak egin behar dira. Baina lurralde guztietan ezin da otsorik izan. Zeren otsoa dagoen lekuetan abeltzaintza estentsiboa desagertu egiten da. Eta, horrekin batera, herrietan horretaz bizi den jendea. Horren eraginez, mendian gero eta sasidei gehiago daude. Biomasa jaten dute abereek, edo suak. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ikerketa batek argi dio hala dela. Horregatik oso-oso garrantzitsua da nahikoa abere kopurua izatea mendietan. Horretarako, abeltzaintza estentsiboa zaindu behar da. Alde batek, sozialki, herrietan bizi garenok bestela ez dugulako beste irtenbiderik. Eta, bestetik, naturan, suak eragin ditzakeen kalteak.

Otsoa dagoen tokietako abeltzainak nola moldatzen dira?

Estatuan bi eskualde daude. Bata da otsoa beti izan dutena, sekula handik desagertu ez dena. Duero ibaiaren azpiko eskualdea da. Duela 20 urte otsoak hedatzen hasi ziren eta pertsonarik ez dagoen tokiak otsoen eremu bihurtu dira. Argi dago. Sorgin-gurpila da: zenbat eta jende gu-



Javier Saez de Jauregi Ameskoako artzain egunean. MAITE GONZALEZ, DIARIO DE NOTICIAS

txiagi bizi, otsoa hedatuago. Eta ez baduzu hori kontutan hartzen, ez baduzu neurririk jartzen, horrek herrietan gero eta jende gutxiago gelditzea eragiten du. Azkenean, gero eta jende gutxiagok lan egiten du abeltzaintza estentsiboan eta eremu askoz ere txikiagoa erabiltzen du. Bestetik, zenbait neurri, mastinak, itxiera berezi batzuk, gau eta egun zaindu behar duzu artaldean... Edozein lanbidetan esaten baduzu: "orain lan egin behar duzu larunbatetan eta igandeetan,

"OTSOA DAGOEN LEKUETAN ABELTZAINZA ESTENTSIBOA DESAGERTZEN DA"

eta ez bakarrik egunez, gauez ere". Horrek eragiten du gero eta zailagoa bihurtzea halako zerbaitegiteko dirua nonbaitetik atera behar da. Lehen beste gauzetarako erabiltzen zen dirua orain bakarrik horretarako. Eta diru aldetik ez da txantxetako gauza.

Demagun otsoa sartzen dela. Haien populazioa kontrolatua egoteko aukera ikusten duzu?

Beste lekuetan ikusten dudana-gatik, ez. Zoritxarrez kontrolatzeko oso zaila da. Duela 40 urte mendian zeuden pertsonen kopurua oraingoaren hirukoitza zen. Pentsa, otso bakar bat, hainbeste jenderekin mendian. Urteak kostatu zen hura harrapatzea. Bestetik, gaur egun, ezin da eskopetarik eraman, defendatzeko. Otsoarena saihesteko zerbaitegitekotan zerbaite selektiboa izan beharko luke.

Zein prebentzio neurri har litezke?

Otsoak heltzen direnean gauez erasotzen dute. Gauez ardiak ixten badituzu, egunez erasotzen ikasten dute. Mastinek defendatzen dute, baina ezin dute leku guztietan egon artaldearekin. Zenbat eta hedatuago artaldea, gero eta zailago ardiak ez galtzeko. Bestetik, mastinak oso lurraldekoiak dira eta pertsonekin arazoak izaten dituzte. Zeren ez dute bakarrik otsoaz defendatzen, baita pertsoez ere; ezin dira artaldera hurbildu. Gainera, pertsonak txakurrak eramaten badituzte, kristoren arazoak sortzen dira mastinen eta pertsonen txakurrekin. Hori ez da tontakeria bat. Mastin on bat izateko izan behar da jeniuduna, kategoriakoa. Urbasa-Andira igo eta pentsa ezazu: artalde batetik kilometro bat baino gertuago ezin naiz egon. Eremua oso mugatu legoke. Ondorioa litzateke orain 40-50 artalde edo gehiago baldin badaude, bat edo bi geldituko liriateke. Orduan bai, izkina batean, neurri guztiekin. Beste kontu bat: kalte ordainak jaso behar dira; nahiz eta gutxi egon, eta gainean egon.

Horrelako gauzak ongi egin behar dira. Eta ongi egiteko dirua behar da. Kontatu didatenez, otsoa heldu berria zen leku batean, hasieran administrazioak artzain bati itxiera bat jarri zion, gauez ardiak han izateko. Eurria hasi zuen eta dena lokaztu zen. eta lehen hektarea laurden batekin nahikoa zena orain hiruzpalau hektareako itxitura egin behar dute. Hesia 2,5 metroko altuerakoa, gaintetik ez pasatzeko, eta azpitik ongi eginda, kostu handikoa. Egin beharreko hori guztia egiteko dirua nonbaitetik atera behar da. Lehen beste gauzetarako erabiltzen zen dirua orain bakarrik horretarako. Eta diru aldetik ez da txantxetako gauza.

Otsoa sartuz gero, bertako arrazak, latxa ardia, arriskuan legoke?

Jakina. Udaberrian edo udazkenean Sakanako larreetan abere asko dago larretan, aske, itxiturretan. Nahiz eta noizean behin txakurrekin arazoren bat duten.

"ORAIN OTSORIK EZ DAUDEN LEKUAK HORRELA MANTENDU BEHARKO LIRATEKE, OTSORIK GABE"

Bada, hori guztia desagertu egingen litzateke. Eta ez bakarrik ardiak. Leku gehienetan hasierako eraso gehienak artaldeetan izaten dira eta desagertzen den lehen azienda ardiak dira. Gero baita txekorrek, pottoekin... beste abere txikiengan gero eta eragin handiagoa izaten dute. Horiek helduak izan arte ezinen litzukete kanpoan utzi.

Abeltzaintza estentsiboan behorrek dituen asturiar batek kontatu zidan 40-50 behor eta bospasei potto. Gainontzeko guztiak otsoen erasoengatik desagertu egiten dira. Produktibitatea? Txikiena. Eta zein abere gelditzen dira mendian? Beste lekuetatik dirua ateratzen dutenen azienda; kapritxo modura dutenena. Abeltzain profesionalak desagertu edo kopurua izugarri jaisten da, eta leku berezi batzuetan oso gutxi gelditzen dira. Ondorioz, lurraldearen erabilera gero eta murriztagoa da. Gero eta gutxiago erabiltzen da eta, ondorioz, sasideiak urte gutxitan handitu egiten dira.

Zuendako, otsoa urruti hobe?

Bai. Otsoak bizi behar du, baina ezin dugu leku guztietara hedatzen utzi. Orain otsorik ez dauden lekuak horrela mantendu beharko liriateke. Leku horietan, gurea barne, abeltzaintzaz bizi den nahikoa jende dago, eta hori ez galtzeko. Gaur egun dugun gizarte ehuna duela urte batzuk baino txikiagoa da, baina nahikoa potentea da. Artzaintza, elkartea, gazta... eragin ona du. Ez soilik ekonomikoa. Soziologikoki gizarteak galdu egingen luke. Leku askotan ez dagoen altxor izugarria da, zaindu behar dugu. Gure ardura da abeltzaintza estentsiboa zaintzea. Ez bakarrik jendea herrietan bizi garelako, ingurumenarekin ere lotura du eta oso garrantzitsua da. Pertsonarik ez balego ez legoke batere arazorik otsoa hor egoteko.

Espero dut administrazioak kontuan hartzea hau guztia. Borondate onez, baina normalean, otsoez egiten diren hausnarketa asko oso sinplistik dira. Eta ez dute abeltzaintza estentsiboaz bizi garen mendialdeko herri txikietan duen garrantzia kontuan hartzen. Argi eta garbi: ez dute utzi behar honaino heltzea ezer egin gabe. Orain dauden lekuetan kontrolatu behar dira otsoak, ez hedatzeko. Eta dauden lekuetan ez dut esanen zer egin behar den, ez naiz hangoa.

"Jendea prestatu eta laguntzak behar dira"

YOLANDA AREITIO OIARBIDE EUSKADIKO OTSO TALDEA

Euskadiko Otso Taldea 2001. urtean sortu zen. Bere egitekoen artean dago otsoa babestea, ikerlanak eta dibulgazio kanpainak egitea

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Otsoa hedatzearen alde dagoen taldeak aldarrikatzen du animalia gurera iritsi aurretik administrazioek prestakuntza eskaini eta laguntzak eman behar dituztela.

Zein egoeratan dago otsoa gauregun?

Otsoa Espainiako penintsularen hego-mendebaldean tratatuta dago, ez diogu zabaltzen uzten. Nafarroa ez daude eta Euskal Autonomia Erkidegoan, bakarrik banakoren bat azaltzen da, 2016. urtean Bizkaian zegoen azken taldea akabatu zutenetik, Bizkaiko Aldundiaren baimenarekin.

Zein lege babes du?

Hainbat legeren babes du otsoak Espainian eta Europan. Habitategi buruzko Europako 92/43 Zuzentarauan otsoa IV. eranskinean dago, eta "Babes zorrotza behar duten interes komunitarioko espezie" gisa deskribatzen du. Helburu honekin: "Estatu kideetako habitat naturalen eta fauna eta flora basatien kontserbazioa bermatzen laguntzea".

Bestetik, Basa-bizitza eta Europako Natur Ingurunea Zaintzeko Bernako Hitzarmenak II. eranskinean sartu zuen otsoa: "Espezie hauendako zehazki debekatuta egongo da: a) nahita harrapatzeko, edukitzeko eta hiltzeko edozein modu". Gainera, Dibertsitate Biologikoari buruzko Nazio Batuen Hitzarmena (CDB), "dibertsitate biologikoaren kontserbazioa eta erabilera jasangarria, baita ekosistema mailan, espezie eta genetikoki ere" helburu duena.

Horrekin batera, Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen helburua da: "Biodibertsitatea eta geodibertsitatea kontserbatzea eta zaharberritzea, habitat naturalak eta basa fauna eta flora zainduz". Gainera, 139/2011 Errege Dekretua, otsailaren 4koa, Babes Bereziko Araubideko Basa Espezieen Zerrenda

eta Arriskuan dauden Espezieen Espainiako Katalogoa garatzeko dena; bertan espezie bat sartzeko hauxe dio: "[...] arreta eta babes partikularra merezi duten espezie, azpiespezie eta populazioak sartuko dira.

Euskal Autonomi Erkidegoan 1/2014 Legegintzaldiko dekretua dago, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu batekina onartzen duena.

Euskadin, gure taldeak espezie mehatxatuen katalogoan sartzeko eskakizuna egin zuen, "galzorian" kategorian sartzeko eskatuz. Azkenean, epaitegietara jo ondoren Eusko Jaurlaritzak katalogoan sartu zuen, baina kategoria baxuago batean "interes berezikoan". Horrek, hainbat neurriren artean, otsoak ezin direla hil suposatzen du.

Eta Nafarroan legedirik badago?

Desagertutako espezie gisa jasoa zegoen katalogoan eta, beraz, Nafarroako Gobernuak zerbait egin beharko luke espeziea berreskuratzeko. Baina duela hiru bat urte, otsoa katalogotik kanpo atera zuen. Baina estatuko eta Europako legeek foru administrazioa esku hartzera behartuko dute.

Ministerioak irailerako pausoren bat emanen duela entzuten ari gara. Ascel elkarteak Ingurumen Ministerioari otsoa babes bereziko espezieen artean sartzeko eskatu

"ERABAT BABESTUKO DU MINISTERIOAK, EZINGO DA EZ EHIZATU EZTA KONTROL NEURRIRIK HARTU"

"OTSOA ETORRI AURRETIK JENDEA PRESTATU ETA LAGUNTZA PAKETE OSO BAT BEHAR DIRA"

zion 2019an. Ministerioak erabaki zuen katalogoan ez zuela sartuko, baina bai zerrendan. Horrek suposatzen du otsoa babestuta dagoela. Ministerioak adierazi du, asko jota, irailaren 25erako zerrendan sartuta egonen dela otsoa.

Horren ondorioa zein litzateke?

Otsoa erabat babestuta egonen litzatekeela, bai Duero hegoaldean eta iparraldean.

Horrek esan nahi du otsoak ehizatzea debekatuta geldituko litzatekeela?

Bai. Ezin da ehizarik ez inolako kontrolik egin.

Duero ibaia aipatu duzu. Zergatik?

Habitategi buruzko zuzentarauan, 1992an, erabaki zen ibaiaren hegoaldean otsoa babestua egotea (beti egon da eta ez da desagertu) eta iparraldean beste anexo batean sartu zuten otsoa. Baina legedi berriarekin dena berdinduta geldituko litzateke, zerrendan sartu eta otsoa babestuta dago.

Euskadira nondik sartzen dira?

Kantabria edota Burgos aldetik. Burgos aldean populazioa nahiko behean dago. Gehienbat Kantabria aldetik sartzen ari dira, Karrantzara.

Otsoa errotu daitekeela uste duzue?

Jakina. Zer argudio daude ez errotzeko? Horrek izan behar du galdera. Beharrezkoa da eta, gainera, legeek eta nazioarteko hitzarmenek babesten dute.

Zein lirateke otsoa presente egoitearen onurak?

Lehenbizi, otsoak berezko balioa du eta horri garrantzia eman behar diogu. Hortaz aparte, ekosistemetan oreka bat sortzeko eragina du. Batez ere unglatuez elikatzen da, orkatzak, basurdeak... Gehienetan gaixorik daudenengana jotzen dute, errazagoak direlako beraiendako. Halako "garbiketeta" egiten dute.

Abeltzaintza estentsiboa eta otsoa bateragarriak dira? Bai. Adibide mordoa dago. Espainiako hainbat lurraldeetan, hainbat abeltzain daude otsoa beharrezkoa dela esaten dutenak.



2003an Arabako Arkamo mendian hildako otsema, "6 umezurtz utzi zituen". EOT

Otsoa desagertu den Europako lurralde batzuetan hura berriz bueltatzeko apustua egin dute. Horretarako, administrazioak jendea eta, batez ere, abeltzainak prestatzen ari da, bai ekonomikoki, bai prestakuntza ere.

Erasoak saihesteko zer prebentzio neurri hartu litezke?

Hainbat daude: mastinak, itxiturak, animaliak gauetan bildu... Guk uste dugu administrazioak horretan lan egin behar duela eta abeltzainak lagundu, bai prestakuntza baita ekonomikoki ere.

Eta mendien aisialdi erabilera eta otsoa bateragarriak dira?

Mendira errespetuz joan behar gara. Mendian dagoena errespetatu egin behar da. Hori aurreneko gauza da. Aralarren ardien kontrako erasoak izan dira eta han otsorik ez dago. Horrek zer esan nahi du? Jendea mendira joaten denean, askotan txakurrak libre uzten ditugula, pixka bat lasaitzeko edo ongi pasatzeko, eta, azkenean, kalte handia sortzen

ari gara eta ez gara konturatzen. Otsoek eta basa faunak orokorrean beldur handia digute gizakioi. Ez dago inolako arazorik.

Elkarbizitza posible da?

Bai, jakina. Zentzu askotan errespetua falta zaigu. Basoen eta guztiaren jaun eta jabe garela uste dugu. Ez da horrela, errespetuz joan behar da.

Hori horrela, egoera berri horretara prestatzen hasi beharko da?

Bai. Aspalditik prestatuta egon beharko ginatke. Penintsulan otsoa badago eta momentu batekin bestera Euskal Herrian edo edozein lekutan egon daiteke. Uzten badiogu. Horretarako egiten dira hainbat ekologia pasabide. Prestakuntza administrazioaren esku dago, bere lana da eta horri irtenbide bat eman behar diote, ez beste aldera begiratu eta ondoren gutxi batzuen arazo ekonomikoak tiroz konpondu. Hori ez da posible. Jendea prestatu eta laguntzen pakete oso bat behar dira.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Euskaldunon eskubideak ez dira negoziagarriak

Badirudi Nafarroako Gobernuak, laster, Euskararen Foru Dekretu eguneratua tramitatuko duela. Izan ere, Nafarroako Auzitegi Gorenak 2019an bertan behera utzi zituen orduan indarrean zegoen dekretuaren hainbat artikulua, haien artean eremu mistoan eta ez-euskalduneari langintza publikora sartzeko merituen atalak. Bitarte honetan, ehunka lanpostu hornitu dira Nafarroako Gobernuaren baitan euskara meritu gisa aintzat hartu gabe; hori bai, horietako gehienetan ingelesa, alemana eta frantsesa meritu gisa hartzea sustatu da.

Tramitatu aurretik, Chivite presidenteak eta Ramirez funtzio publikoko arduradunak adierazpen bateratuak egin dituzte, alegia, euskara eremu ez-euskalduneari meritu izatea euskara ez dakitenekiko diskriminatzailea dela (hots, euskaldunen pribilegioa) eta euskara Buñuelen baloratu nahi izateak Nafarroa ez ezagutzea esan nahi duela (euskara Nafarroako berezko hizkuntza denean, izango da Buñuel Nafarroatik kanpo kokatzen duela?).

Chivitek eta Ramirezek jakin badakite Nafarroako eremu osoan edozein administrazio publikora jo ezker ez dutela batere arazorik izanen espainieraz artatuak izateko eta tramitazioa burutzeko, inolako salbuespenik gabe. Halaber, badakite (edo jakin beharko lukete) Nafarroako Gobernuaren administrazio orokorrean euskaraz artatua izatea mirari hutsa dela eta tramitazioa ezinezkoa (*ablameencastellano*) (mozolo bat ikusten ari denaren aurpegia jarrita).

Nafar batzuek euskararekiko jarrera errefraktarioa dute, euskarak alergiaren bat sortuko ote liekeenaren parekoa. Haien boterea baliatzen dute alergia hori jaurtitzeko eta, maltzurki, euskaldunoi espainiera inposatzeko eta, bortizki, oinarriko eskubideak ukatzeko (bortitza baita Nafarroako Gobernuaren leihatila batean ere euskaraz artatua izatea miraria izatea!). Uko egiten diote euskara ikasteari eta uko egiten diote haien seme-alabei euskara irakasteari. Irmotasunez egiten dute euskara ez den beste edozein hizkuntza ikasteko. Baina, euskaldunon eskubideak bermatzeko bitartekoak eta langileak ezarri behar direnean, diskriminatzailea eta euskaldunen pribilegioa omen da. Onartuko lukete Chivitek eta Ramirezek espainieraz artatuak ez izatea?

Euskara sustatzea eta euskaldunon eskubideak bermatzea ezin da limosna bat izan. Espainieraren inposaketa eta, aitzakiak erabiliz, euskaldunon eskubideak ezdeusa bihurtzea azpijoko bihurria da. Euskaldunon eskubideak de facto bermatuko dituen foru dekretu bat, jada!

HARA ZER DIEN

Etxebizitza kooperatiboak

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Etxebizitza kooperatiboak edo *cohousing*-aren kontzeptua 60-70. hamarkadetan izena izaten hasi bazen ere, orain poliki-poliki gurean hedatzen ari den pertsona helduak bizitzeko modu ezberdina dela esan dezakegu, non gainontzeko bizikideekin zenbait zerbitzu eta etxeko txokoak konpartitzen diren. Eredu hau familia edota pertsona gazteagoen artean hedatuagoa badago ere, azken urteotan bizitzeko beste fase batean daudenen artean interesgarria den eredu da.

Horrelako etxebizitza bat aukeratzen dutenek bizitza

pribatua eta amankomunaren arteko harremanari buruzko iritzi bera dute, ikuspegi berdina. Izan ere, modelo hau etxebizitza pribatua eta amankomuneko zerbitzu anitzetan oinarritzen da.

Bizikideen artean erabakitzen da beraientzat egokiena den elkar bizitzeko eredu, zenbat eta zeintzuk diren amankomuneari izango dituzten zerbitzuak (kudeaketa eredu, garbiketa, zaintza, lorezaintza, sukaldaritza, jantokia, ekintzak...).

Eredu honen alde egiten dutenek oso argi dute abantailak anitzak direla. Alde batetik, zahartze aktiboa eta

bakoitzaren bizitzaren gaineko erabakiak hartzea errazten du. Bestalde, inguruan parte hartze aktiboa bultzatzen du eta babes emozionala eta konpainia eskaintzen du harreman pertsonalak eta bizitza soziala hobetuz. Honetaz gain, eta alde ekonomikoari begira, etxebizitza batek dauzkan gastu orokorrak konpartitzen direnez merkeagoak izan daitezke zenbait kontzeptu (argindarra, janaria, gasa...).

Argi dago bizitzeko moduak aldatzen ari direla eta baita zahartzarorako nahi duguna ere. Etxe kooperatiboen eredu oso baliogarria izan daiteke bizitzeko fase horretan modu kolektiboan, aktiboan eta parte hartzailean disfrutatzeke.



OBJEKTIBOTIK



Barre librea @BarreLibrea · mai. 20

Joxe Aldasoro: "Gorrotu dut jende zoriontsua."

#BarreLibrea



3.313 ikustaldi

0:09 / 2:20

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Miren Alonso Razkin

Azaleko argazkia:

Jabi Trapero

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernu

Bisitariak hizkuntzaz gozatzeko gonbidapena

Horretarako, UEMAren 'Bertatik bertara' kanpainak udan zerbitzu sektorean euskara gehiago erabiltzera animatu ditu. Lehen hitza eta agurrak baita eskerrak euskaraz ematea edo establezimenduko hizkuntza paisaia zainduz (menua, ordutegia...)

SAKANA

Udarekin batera bisitariak etorriko dira bertako produktuen, paisaiaren eta gainerako eskaintza zabalaz gozatzera. Udalerrri euskaldunetara ere etorriko dira eta herri horien nortasuna egokien islatzen duena euskara da. Horren jakitun Arbizu eta Etxarri Aranatz kide dituen Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) *Bertatik bertara* kanpaina abiaraziko du. Haren bidez bisitariak eta bisitariekin harremana duten zerbitzu sektoreko arduradunak eta langileak euskara aintzat hartzera gonbidatu dituzte.

Asmo horrekin, UEMAk hainbat baliabide prestatu ditu, bai bisitariendako, bai zerbitzu sektoreko arduradunendako eta langileendako. Horien artean daude udalen webguneetarako eta sare sozialetarako bannerrak eta testuak, tabernetan eta jate-txeetan erabiltzeko mahai gainekoak, sentsibilizazio bideoak, zerbitzu sektoreko eragileei kanpainaren berri emateko baliabideak, eta bisitariak telefonotan erabili ahal izateko hiztegia, besteak beste. Arbizun eta Etxarri heldu den astean banatu dituzte material horiek.

UEMAko arduradunek jakinarazi dutenez, "kanpaina benetan



Ostalaritza establezimenduetan banatutako mantelak. UEMA

eraginkorra izan dadin, dagozkien sektoreetako arduradunak eta langileak trebatzea giltzarria da eta, horretarako, online saioak prestatu dituzte udaren atarian UEMAk eta udalek". Gaineratu dutenez, "bertako hizkuntza ere kalitatea eta hurbiltasuna erakusteko ezinbesteko osagaia dela gogoratu nahi die kanpainak zerbitzu sektoreko arduradunei". Izan ere, jakinarazi zaien moduan, "askotan bertako hizkuntza alde batera uzten dugu, bisitariak arreta erdaretatik eskainita. Ez du zentzurik, egindako inkestek

eta ikerketek argi erakusten baitute bisitari asko berariaz etortzen dela udalerrri euskaldunetara, eta euskara ikustea eta entzutea gustukoa dutela".

Bideoa ere zabaldu du UEMAk. "Izan ere, gure herriak, gure bazterrak eta gure produktuak nabarmentzen ditugu bisitariak erakartzeko, bertako elikagaiekin eta kulturarekin batera. Askotan, ordea, euskara alde batera uzten dute hainbatek, bisitariak arreta erdaraz eskainiz. Horrek ez duela zentzurik, bisitariak erantzundako galdetegiaren arabera".



Aitor Larrazza Carrera alkatea, kontseilaria eta departamentuko kidea. ARTXIBOA

Saihesbideko aurrekontua 100.000 euro igo da

Saihesbidea aurtan egitea eta Iruñerriko autobikiak lotura 2022an egitea da aurreikuspena

IRURTZUN

Lurralde Kohesioeko Departamentuak Irurtzango Udalari jakinarazi zionez, uda hasieran hasiko lirateke Irurtzango saihsbideko lanak. Hori hala izateko inolako mugimendurik sumatu ez zuenez, Aitor Larrazza Carrera alkateak bilera eskatu zien departamentuko ordezkariak, hilaren 29rako hitzartu zutena. Bitartean Larrazak hedabideen bidez jakin zuen foru administrazioak asteazkeneko bilera erabaki zuela presazkotzat jotzea kaltetutako ondasunak eta eskubideen okupazioa, eta horretara 604.598,09 euro bideratuko dituela. Erabaki horrekin Nafarroako Gobernuak saihsbidea egiteko lanen tramitazioa arindu nahi du.

Herri Lan eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi duenez, Irurtzango saihsbidea egiteko 1.296.363,08 euro bideratuko ditu, azaroan jakinarazi zuena baino 103.830,08 euro handiagoa da oraingo aurrekontua. Hazkunde horretaz galdetuta alkateak ez dakiela azaldu du, desjabetzeengatik izan daitekeela aipatu du. Gobernuak kideekin egiten duen bileran saihsbideaz aparte, Iruñerriko autobiarako loturaz ere galdetuko die. Hori Izurdiagako saihsbidearen bidez egiten litzateke eta, horrela, industrialdeko kamioiek ez lukete herrigunetik pasa beharko.

Izan ere, aurreikusitako bi lanek Irurtzun erdiguneko trafikoa arintzea eta bide segurtasuna hobetzea dute helburu. Herri

Lan eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak 2019an jasotako edukieren datuen arabera 500 ibilgailutik gora ibiltzen dira egunero Astrain eta Irurtzun arteko NA-7010 errepidean, eta N-240-A errepidean egunero 2.675 ibilgailu ibiltzen dira.

Egitasmoaren arabera saihsbidea Lizarra eta Iturtzoko kaleen bidegurutze ondoan egiten den errotondatik abiatuko litzateke. Errepide berria industrialdearen eta etxeen artean egiten dute, eta Aralar eta Akaborro industrialdearen bidegurutzean bukatuko da. 300 metro luze eta 7 metro zabal izanen ditu errepideak, bi errei izanen ditu eta herriaren aldean bi metroko espaloia egiten da.

Lan deialdia

Musika eskolako plantillako lanpostu hutsa betetzeko klarinete irakaslea kontratatu nahi du Irurtzango Udalak. Deialdi bera baliatuko du udalak lanpostu horretarako ordezkapen poltsa sortuko du eta haren puntuazio ordenaren arabera ordenatuko da, lau urterako baliagarria izanen da, ordezkapenak betetzeko. Deialdian jaso denez, lanpostua B mailakoa da eta hautagaiak euskaldunak izan behar dute (C-1 ziurtagiria edo baliokidea). Lanpostuan interesa duten pertsonak beraien eskabideak Irurtzango udaletxean aurkeztu beharko dituzte lan deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamargarren egun baliaduneko 14:00ak baino lehen.

Markesina berria jarrita

Hiriberri Arakilgo Goialde kaleko 1. zenbaki ondok kale bereko 8. zenbakiaren parera lekualdatu da autobus geltokia. Orain arte zegoena bihurgune baten erdian zegoen eta autobusak gelditzen baziren, segurtasun arazoak sortzen ziren. Arakilgo Udalak jarri du Garzandia zurgindegian egindako markesina. 3.500 bat euro bideratu ditu.



Sakanako merkataritza ikusgarri egitera goaz!



SARIA:

1000 € Sakanako BERRIAlagun komertzio eta tabernetan gastatzeko

EPEA: **ekainaren 15etik 24ra**



Nola parte hartu?

BERRIAlagun diren komertzio eta tabernetan gastua egin eta datuak bete

Zozketa eguna: ekainak 30



Sakanako BERRIAlagun iragarleen zerrenda

ALTZARI DENDAK

ETXARRI ALTZARIAK · Etxarri Aranatz
HOSTOGORRI ALTZARIAK · Etxarri Aranatz
MUEBLES SANTA CRUZ · Altsasu

ARROPA ETA OINETAKO DENDAK

MARI CARMEN · Altsasu
IKER KIROLAK · Altsasu
SABANDO DENDA · Etxarri Aranatz
LEZEA KIROLAK · Altsasu
LARKA · Altsasu
JOSELEN MODA · Altsasu
TU TIENDA ESPECIAL · Altsasu
SARE OINETAKOAK
ETA POLTSAK · Altsasu
ASENSIO MODA · Altsasu
KATUKA · Altsasu
ML MODA · Altsasu
TXIKITXO · Altsasu
PINPILINPAUXA · Altsasu
BENGOETXEA OINETAKOAK · Altsasu
EKIN MODA · Altsasu
LASA KIROLAK · Altsasu
MARIGORRI · Altsasu

EDERTASUNA

IÑAKI ILEAPAINDEGIA · Etxarri Aranatz
LIZARDI · Etxarri Aranatz
IZELZI S.L. · Altsasu

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

GERTU SAKANA SL · Altsasu

HORTZ KLINIKA ETA OPTIKAK

ARGIRO OPTIKA · Etxarri Aranatz
OPTIKA SAKANA · Arbizu

JANARI DENDAK

ISIDORO ARREGUI HARATEGIA
Lakuntza
PAKO HARATEGIA · Olazagutia
SORKUNDE HARATEGIA · Altsasu

CRISTINA JANARI DENDA · Altsasu
JUNCAL AUTOZERBITZUAK
Lakuntza
TANIA ARRANDEGIA · Lakuntza
LONBREN DENDA · Arbizu

LIBURU DENDAK

ARKATZ LIBURUDENDA · Altsasu
KAXETA LIBURUDENDA
Etxarri Aranatz
LIBURUNDA PAPERTEGIA · Altsasu

LORE DENDAK

LOREA · Altsasu

PAPER DENDAK

TXARTEL · Altsasu

TABERNAK

CAFÉS AKEITA · Altsasu
DERRY ASKE · Etxarri Aranatz
GAUTXORI TABERNA · Altsasu
LEKU-ONA TABERNA
Etxarri Aranatz

ZERBITZUAK

RAMOS ETXEA · Altsasu
RAMOS ELEKTRIZITATEA · Altsasu

BESTELAKOAK

XAGU INFORMATIKA · Altsasu
IZARA · Altsasu



Antolatzailea:

berria

Laguntzaileak:

Mank
sakanak
Sakanako Mankomunitatea



Babeslea:



Ikerketa eta Garapen jardunaldian Sakana ere

Foru administrazioak antolatutako '% 100eko I+G Nafarroa' jardunaldiaren baitan E-hiera eta Trombe proiektuen berri eman zuten. Nafarroako Gobernuak proiektu estrategikoen eta berrikuntzaren alde egitera deitu du

SAKANA

Ekonomiaren eta Enpresen Garapenerako Departamentuak Foru Erkidegoan 2017 eta 2020 bitartean egindako eta Nafarroako Gobernuak finantzaturako Ikerketa eta Garapenerako (I+G) proiektu estrategikoen emaitzak aurkeztu zituen asteartean, % 100eko I+G Nafarroa jardunaldiaren baitan. 33 ekimen dira, guztira 60 milioi euro aurrekontua dutenak, horietatik 50 milioi laguntza publikoak. Jardunaldiaren barruan lau mahai inguru izan ziren eta haietan garatutako edo oraindik gauzatzeko fasean dauden kasu arrakastatsu batzuen berri eman zen. Mahai inguruetako bat energia berriztagarriak biltzearen ingurukoa izan zen eta han Sakanako egitasmoen berri zabaldu zen.

E-hiera proiektu estrategikoko mikrosareen bidez energia biltzeatzeko bi produkturen garapena lortu du. Zehazki, teknologia berri eraginkorragoa,



Esekiko Juan Esteban Ceberio, behean, eskuinean. NAFARROAKO GOBERNUA

energia kostua murriztea, baita negozio eredu berria sortzea. Hartan Sakanako Garapen Agentziak, Cenerrek, Permagsak, Iradi ingeniariak, Esekik, Nil-sak, Nafarkoopek eta Talleres Araniak parte hartu dute. Egi-

tasmoak 2,1 milioi euroko aurrekontua du. Esekiko Juan Esteban Ceberio eman zituen azalpenak jardunaldian.

Trombe proiektu estrategikoa, berriz, eraikuntzako elementu berritzailea, modularra eta

arina garatu, eraikinetako fatxadetan energiaren optimizazioarako aproposa sortzean datza. Proiektua garatzen ari dira oraindik. Cener, Garcian-dia zurgindegia, soltek, Aldakin, Contec ingeniariak eta arkitektura dira parte hartzaileak eta milioi bat euroko aurrekontua izan du. Cenerreko Fco. Jose Serna Lumbrerasen arduradunaren egitasmoaren berri ematea.

Kontseilaria

Ekonomia eta Enpresa Garapenerako kontseilari Mikel Irujo Amezagak azpimarratu zuenez, "2019an BPGren gaineko I+Gko inbertsio publikoak hobera egin duela baieztatu du estatistikak Nafarroarendako". Era berean, aurtengo deialdia tramitazio prozesuan dagoela eta 16 milioi euro dituela gogorarazi zuen. "Inoiz baino gehiago, Nafarroako enpresek berrikuntza, lankidetzak, digitalizazioa eta sormena behar dituzte", azpimarratu zuen.

Testuinguru horretan, I+G proiektu estrategikoen egiteko laguntzek duten garrantzia azpimarratu zuen Irujo kontseilariak; izan ere, eragin handiko proiektuak sustatzen dituzte, Nafarroako Espezializazio adimenduneko Estrategian (S3) identifikatutako sektoreekin lerrokatuta, hala nola automobilgintza eta mekatronika, nekazaritzako elikagaien indus-

tria, energia berriztagarriak, osasuna, turismoa edo industria sortzaile eta digitalak.

Pizgarri horien onuradun izan daitezkeen zenbait ezaugarri bete behar dituzte dirulaguntza jasotzeko, esaterako, proiektu bakoitzeko gutxienez zenbateko milioi bat eurokoa izatea. Kontuan hartzen da, halaber, "Industria ikerketa" edo "garapen esperimental" sustatzea, Espezializazio adimenduneko Estrategiak (S3) ezarritako eronkei lotuta. Eta, batez ere, gutxienez ikerketa erakunde baten eta erreferentziazko erakunde edo traktoreen artean lankidetzak zuzena egotea.

Uxue Itoiz Nafarroako Gobernuko Industria, Energia eta Proiektu Estrategikoen S3ko zuzendari nagusiak aurrera egitera eta proiektu berriak bilatzen laguntzera animatu zituen enpresak, ikastetxeak eta akademia: "Deialdi hauetan, garrantzitsua da proiektu disruptiboak irekitzeko gune bat izatea, antzeman ditzakezen beharrei eta hutsune berriei erantzuteko, aurrera egin ahal izateko eta Nafarroa berrikuntzan eskualde liderra izan dadin".

"BERRIKUNTZA, LANKIDETZA, DIGITALIZAZIOA ETA SORMENA BEHAR DITUZTE ENPRESEK"

Udalak hitzarmena betetzeko eskatzeko, langileak protestan

Lan egunetan kontzentrazioak egiten hasi dira kaleratutako langilea hartu eta birkokatze eskatuz

OLATZAGUTIA

Asteazkenaz geroztik, Olatzagutiko Udaleko langileak kontzentrazioak egiten ari dira *Hitzarmena bete, eta kitto* lelopean. Udaleko LAB sindikatuak deitutako bilkura horien bidez abendu akaberan kaleratua izan zen lankidea berriro hartzeko exijitzen dute. Kontzentrazioetik langileek udaleko gobernu taldeari eskatzen diote kaleratutakoaren egoera bideratzeko. Horretan aurkeztu duten lege txostena lagungarria izan daitekeela uste dute. Langileek jakinarazi dute-

nez, etorkizunean ez dute beste protesta neurri batzuk hartzea baztertzeko.

Olatzagutiko Udaleko LABek gogorarazi duenez, aurretik hainbat ezintasunaldi izan ondoren, Gizarte Segurantzak zerbitzu anitzetako langileari ohiko lanerako ezintasun iraunkorra aitortzen dion ebazpena eman zuen joan den urtean. "Lehen egiten zituen lanak egiteko gaitasuna murriztua dauka, eta kotizazio oinarriaren %55eko pentsioa esleitzen zaio". LABeko kideek gaineratu dutenez, uda-

laren lan hitzarmenean langilea birkokatzea jasoa dago eta udalak horretarako "konpromisoa hartu zuen, aukera izanez gero eta aukera guztiak aztertuta". Sindikatuko ordezkariak lankidearendako irtenbidea bilatzen hasi ziren.

Horretan ari zirela, abenduaren 29an, udaleko idazkariaren txostenean oinarrituta, alkateak ebazpena eman zuen langilea ez birkokatze. Mobilizatu diren langileek azaldu dutenez, "LABeko lege zerbitzuek alkatetzaren ebazpena errekurritu zuten, eta elkarrizketa prozesu bat hasi zen. EH Bilduk lege txosten bat eskatu zigun, idazkariak egindakoa indargabetzeko eta juridikoki defendatu ahal izateko".

Hala egin dute LAB sindikatuko kideek eta haien iritziak, "bermatzen da plantillako pla-



Udaleko langileak 11:00etatik 11:30era bilkurak egiten hasi dira. UTZITAKOIA

za bat aldatzeko aukera, hala, kaleratutako langileak bete ditzakeen beste funtzio batzuk emanez, edo, plaza berri bat sortzeko aukera ere eskaintzen da, lehendik daudenetako bat amortizatuta".

Protesta hasi duten langileen iritziak, "txostena baliagarria izan zitekeen egoerari irtenbidea emateko, baina tiraderan sartu da, eta orain langile gazte bat dugu, prekarietatera eta bazterketara kondenatua".

Itur bedeinkatuko ospakizuna bertan behera Olatzagutian

Olatzagutiko Udalak bertan behera utzi du, COVID-19ak eragindako pandemia ez zabalteko osasun agintariek emandako gomendioak jarraituz. Udalak, bestetik, gogorarazi du San Joan egunerako ere ez dela ezer antolatuko. Horregatik, olaztiarrei arduraz jokatzeko eta bide publikoan surik ez egiteko eskatu die.

Ziordiko Udalak festan bertak behera utzi ditu

Ziordiko Udalak jakinarazi du aurten festen ordez kultur egitaraua antolatu duela uda partarako. Eta hasteko Xabier Artieda *The Road* ikuskizunarekin izanen da gaur, 19:30ean, eliza ondoan. San Joan bezperan ez da Batuekon auzaterik izanen ezta afaririk txipudian. Sua piztuko da, baina babes neurriak errespetatu beharko dira.



ARTXIBOA

Kofradiaren eguna atzeratuta

Azken urtean hildako Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiako kideak gogoan izaten dituzte urtero erakundearen egunean. Aurten iganderako iragarria zegoen, baina COVID-19 gaitzak eragindako pandemiagatik bertan behera utzi dute hitzordua. Egoerak hobetuz gero lastailaren lehen hamabostaldian izanen da.

Koronabirusaren kontrako txertaketak ez du etenik

Aste honetan 3.217 jarri dira Irurtzun eta Etxarri Aranazko osasun eskualdeetan. 50 eta 59 urte arteko sakandarrei azken txertoa jarri zieten eta gaur 40 eta 49koen artekoek jasoko dute lehen dosia

SAKANA

Osasunbideak COVID-19 gaitzaren kontrako 39.712 txerto jartzea aurreikusia zuen aste honetarako. Horietatik 3.217 txerto sakandarrek hartu dituzte. Nafarroako Osasun Zerbitzuaren txertaketa bideari segituz, 40 eta 49 urte artekoak izan dira txertoak jaso dituztenak. Era berean, jarraibidearen itxieran aurrera egin da 50 eta 59 urte arteko taldean, eta, aldi berean, bigarren dosiak jarri zaizkie 50 urtetik gorako adin taldeetan.

Sakanari dagokionez, Irurtzungo kiroldegian osasun eskualdeko 50 eta 59 urte arteko 1.100 pertsonak COVID-19aren kontrako bigarren txertoa jaso zuten astelehenean. Asteartean, berriz, Etxarri Aranazko Euskalerrriari frontoian Lakuntza eta Urdiain bitarteko adin bereko 697 sakandarrek bigarren txertoa hartu zuten. Txertaketa taldeak aipatu bi herrietara bueltatu dira gaur. Bietan 40 eta 49 urte bitarteko



Urte hasieratik herenegun arte 1.305 positibo izan dira Sakanan.

sakandarrek jasoko dute COVID-19 gaitzaren kontrako lehen txertoa. Irurtzunen 850 txerto jarriko dituzte eta Etxarri Aranazten 570.

Hilabete hasieratik herenegunera arte 50 positibo zenbatu

dira Sakanan: Uhartan 18, Altsasun 14, Etxarrin 9, Lakuntzan 7 eta Bakaikun eta Olatzagutian bana. Joan den ostegunetik herenegun arte 10 kasu zenbatu dira: 4 Altsasun, 3 Etxarrin, 2 Lakuntzan eta 1 Uhartan.



Ospakizun sinbolikoak Etxarrin

Igandean eta asteazkenean San Kiriko eta San Adrian ospatzeko ekitaldi sinbolikoak antolatu zituen Etxarri Aranazko Udalak. Patroiaren egunean, San Kirikon, udalbatzak eta txistulariak herrian barna kalejira egin zuen. Ondoren kintoek dantzakia dantzatu zuten eta azken bi urteetan jaiotako etxarriarrei festetako ttattarra oparitu zien udalak. 2019an jaiotako 28 umek jaso zuten ttattarra eta joan den urtean jaiotako beste 22k.

Herenegun, berriz, udala ez zen beheko basoan dagoen ermitaraino joan txistulairiekin batera eta herrian gelditu ziren. Igandean egin bezala, kalejira eta kintoen dantzakia izan zen alde batetik. Ondoren, udalak etxarriarren artean fritada edo haragi gisatua banatu zuen. Ospakizuna mendian denean gosari gisa eskaintzen da. Herenegun jatekoa eramateko ontzietan banatu zien etxarriarrei udalak.



La Vasco Navarrako langileak baldintza eta hitzarmen duina eskatzen dute. ARTXIBOA

La Vasco Navarran gauzak zeuden bezala segitzen dute

Hurrengo astelehen eta ostegunetan lan txandako lan uzteak egitera deituta daude langileak

OLATZAGUTIA

La Vasco Navarra enpresako zuzendaritzaren eta enpresa batzordearen arteko harremanik ez da izan aste honetan. LABek eta CCOOK deituta, langileak lan uzteak egiten ari dira. LABetik azaldu dutenez, "lan txanda ba-koitzeke enpresako langileen erdia baino gehiago ari da lan uztea egiten. Aldi Baterako Lan Enpresen (ABLE) bidez kontratatuta daudenak ez, beste nagusi bat dute eta". Langileen ordezkariak gaztigatu dutenez, lan uzteekin segituko dute hileko astelehen eta ostegunetan. Baina

bestelako mobilizazioak egitea ere ez dute baztertzen.

LABek eta CCOOK langileak bi arrazoiengatik mobilizatu dituzte. Batetik, enpresako lan hitzarmena lortzeko. Hura "duina" izatea nahi dute. Gainera, langileendako lan baldintza "duinak" aldarrikatzen dituzte ere. Besteak beste, soldatak handitzea, urtean lan egindako lan orduak murriztea edota ABLE bidez egindako kontratazioak puntualak izatea, ez orokortuak. Langileen iritziz, zuzendaritzak horretarako aukera du, enpresak irabaziak baititu.

DUELA 25 URTE...



Errusiatik Sakanara

Mugarik Gabeko Nafar Elkartasuna gobernuz kanpoko erakunde kideak garagartzaroaren 13an Errusiarako bidea hartu zuten, udaldia pasako zuten haur Errusiarak non bizi ziren jakin eta zituzten osasun eta bestelako beharren berri zehatz jakiteko. Garagartzaroaren 23an iritsi ziren haurrek bi hilabete eman zituzten Sakanan. Irurtzunen 38 egon ziren eta hirugarren uda zuten bertan. Gainontzeokoah Uharte Arakilen eta Altsasun egon ziren; estreinako aldia zen herri horietara joaten zirenak.

Udalak hizkuntza eskubideak "behingoz errespetatuz"

EHEk deituta kontzentrazioa egin zuen Altsasuko Udalak euskara ordenantza bete dezala eskatzeko

ALTSASU

Udalak "euskaldunekiko duen jarrera salatzen" kontzentrazioa egin zen Euskal Herrian Euskaraz-ek (EHE) deituta. Eragile euskaltzaleko ordezkariak gaztigatu zuten, "udalean, etengabe, gure hizkuntza eskubideak urratzen dira: gaztelania hutsezko mezuak jasotzen ditugu askotan, 012tik edo e-postak, kultura eta kirol arloetan euskarazko eskaintza oso urria da". EHEko kideek gaztigatu zuten, Altsasuko Udalaren euskara ordenantzak jasotzen duenez, udalak "elebitasun normalizatzailea" erabili behar du, "hau da, euskarari lehentasuna ematea". EHEko kideek altsasuarrak "bizi dituzuen urraketa guztiak udalean bertan salatzen, edo guri jakinaraztea" gonbidatu zituzten.

EHEtik jakinarazi zuten, Javier Olo Martinez alkateari



Euskara ordenantza betetzea eskatzen.

berain kezka berri jakinarazi zioten bilera batean. "Onartu zuten esaten geniona. Prest azaldu zen pausoak ematen hasteko". Gaiari jarraipena eginen diote, horregatik, hilabete batzuen ondoren berriro alkatearekin bilduko direla gaztigatu zuten.

Emakume talde berria sortu dute ibarrean: Itaia

Hilaren 26an, larunbatean, 18:00etan, Altsasuko lortia kultur gunean bere burua aurkeztuko du

SAKANA

Itaia sortu da "emakume langileen babesa antolatzen" hautua" egin da. Sakanako Itaia taldeko kideek azaldu dutenez, "gaur egungo ekonomia testuinguruari erparatuta emakume langileen zapalkuntza gainditzetik urrun, atzeraldi ekonomiko gogor baten aurrean gaude. Ekonomia krisialdiak berarekin dakarren dimentsio orokorra aztertu behar dugu; gurean, emakume langileengan izanen duen eragin sozialean jarri dugu arreta".

Adierazi dutenez, "emakume langileen bizi ereduaren ezagarrri da lan harreman prekarioena, instituzio burgesekiko ekonomia dependentziara kondenatuz. Familia unitatearen erreproduzioak exijitzen dituen etxeko lanek oraindik ere gain izaten duten pisua nabaria da, eta geroz eta handiago izango da

COVID-19ak azkartutako krisi kapitalistaren testuinguru honetan". Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen egoera ere hizpide dute, "konfinamenduak edota isolamendu politikek indarkeria gauzatzeko testuingurua erraztu dute".

Etorkizuna "iluna" dela "begibistakoa" da Itaia kideen iritsiz, "horregatik, antolakuntza politiko sozialistaren hautua egiten dugu; jendarte komunistaren eraikuntza eta beraz, zapalkuntzarik gabeko gizartearen bidean, emakume langileen askapena gorpuztuz". Gaineratu dutenez, "klase kontzientzia garatuz, gure bizi baldintza eta baldintza estrategikoak hobetzeko borroka prozesu eta lan ideologikoa abiaraziko ditugu". Sakanako Itaiatik "emakume langileen askapena" lortzeko "gaitasunak antolatzen" deitu dute.



Hilaren 30ean eginen dute zozketa.

'Berria Zabalik', merkataritza biziberritzeko kanpaina

46 saltokik bat egin dute. Haietan erosten dutenak 1.000 euroren zozketan sartuko dira

SAKANA

Euskara hutsezko egunkariaren "ikusgarritasuna" handitzeko eta ibarreko "merkataritza txiki eta ostalarien jarduna biziberritzeko kanpaina da" *Berria Zabalik*. Eta harekin bat egin dute Sakanako 46 establezimenduk. Asteartean abiatu zen eta ostegunera arte indarrean izanen da. *Berria* egunkariaren kanpainarekin bat egin duten saltokietan erosketan egiten duen guztiak 1.000 euroren zozketan parte hartzeko aukera izanen dute. Horretarako, txartel bat bete beharko dute. Zozketa hilaren 30ean izanen da. Rural Kutzak emandako mila euro horiek kanpainan parte hartu duten saltokietan gastatu beharko ditu sarituak. Bat egin duten denda eta taberna guztiak *Berria Zabalik* kartelarekin identifikatuta daude. Izena eman duten 49etatik 34 Altsasukoak dira, 10 Etxarri Aranazkoak, 3 Lakuntzakoak eta Arbizukoak eta Olatzagutiko bana. Sektore guztietako establezimenduek parte hartzen dute kanpainan. *Berriak* haien guztien artean egunkarian jartzeko 1.000 euroko balioa duen publizitatea zozketatuko du. Kanpaina martxan jartzeko, *Berriak* SDOZEren eta Mank-en laguntza eta Rural Kutzaren babesa izan ditu.



Etxarren eta Irurtzungo ikuspegia.

Urdalurko sareko lanak emateko deialdia egina

Sakandarren ur hornidura bermatzeko eraiki zen Urdalurko uharka. Haren goiko ur banaketa sarea gaur egun Satrustegiraino iristen da. Sakanako Mankomunitateak hodia Irurtzuneraino luzatu nahi du eta, horretarako, beste pauso bat emanen du aurten Satrustegi eta Etxarrengo ur biltegiaren artean hodia luzatuz. Ur hoditeria Arakilgo bi herrien artea luzatzeko lanek 509.215,85 euroko (BEZ kanpo) aurrekontua dute eta haiek egiteko lau hilabete izanen ditu enpresa hartzaileak. Sakanako Mankomunitateak lanak emateko deialdia egin du haiek egiten interesa duten enpresek garilaren 1eko 23:59ra arte dute proposamenak aurkezteko.



Artxueta mendiko antenak. ARTXIBOA

Telekomunikazioekin lotutako hainbat erabaki

Ordenantza bidez telekomunikazio operadoreek saretzea nola egin behar duten zehaztu du udalak. Baita herri lurretan nola ezarri behar duten. Azken hori, batez ere, Artxueta eta Martigarro hobe kudeatzeko egin du

UHARTE ARAKIL

Uharte Arakilgo Udalaren azken bilkuran telekomunikazioen arloak aparteko garrantzia izan zuen. Telekomunikazioen arloa herrian arautzeko lerro nagusiak zehaztu ditu Uharte Arakilgo Udalak eta ordenantza batean jaso ditu. Txomin Uharte Baleztena alkateak azaldu duenez, "edozein telekomunikazio ope-

radore edo taldek saretzea nola egin behar duen zehazten du ordenantzak".

Horrekin batera, herri lurretan dauden telekomunikazio azpiegiturak araututa gelditu dira. Izan ere, Artxueta mendian antena pila izateaz aparte, Martigarro dermioan ere telekomunikazio antena dago ere. "Orain arte udalak ez zuen araudirik.

Honekin egitura antolatu eta txukun jarri nahi dugu, jakin zein dagoen lanean", azaldu du Uhartek. Alkateak jakinarazi duenez, Toki Administrazio Departamentuarekin eta Guifineten laguntza izan du udalak telekomunikazio operadoreen diagnostia egiteko. "Nor ari den eta nola jakiteko". Alkateak jakinarazi duenez, herrian dauden antenen

emisioren neurketa egitea aurreikusita dute.

Eta gaineratu du haien asmoa dela "erabiltzaileak arduratzea erabilpen txukuna egiteaz". Horrekin batera, "ahalik eta egitura gutxien egotea eta dauden ahalik eta eraginkorrenak izatea. Hau da, azpiegiturak partekatzea eta ahalik eta inpakturik txikiena sortzea", azpimarratu du alkateak. Aldi berean, Uharte Arakilgo Udalak ardurak eta konpromisoak hartu ditu araudi berrian, azpiegiturak egin behar badira, egiteko. Horrekin batera, ordenantza fiskala ere onartu du udalak, besteak beste, egin beharreko lanak pagatzeko.

Azkenik, Uharte Arakilgo Udalak Sakanako telekomunikazio sarea herritik pasatzea onartu zuen, horretarako jarraibideak zehaztuz. Aizkorbe eta Etxarri Aranatz lotuko dituen zuntz optikoko sarea zabaltzen ari da Guifinet fundazioa Sakanako Mankomunitatearekin batera.

Festarik ez

San Joanekin batera Uharte Arakilgo lehen festak ospatzen dira. Hurrengoak San Migel egunarekin izaten dira, irailaren 29aren bueltan. COVID-19 gaitzak sortutako pandemia egoerak sorrazitako osasun egoera kontuan izanik, eta osasun agintarien aholkuei jarraituz, Uharte Arakilgo Udalak jakinarazi du bertan behera utzi dituela aurtengo San Joan festak.

MEMORIA ERAIKIZ

flores en el asfalto

—HORTZMUGA TEATROA—

EKAINAK 25, OSTIRALA, LAKUNTZAKO KULTUR ETXEAN

Indarkeria matxistaren biktima izan eta bizirik dirauten emakumeen ahotsak biltzen dituen ikuskizuna

EMANALDIEN ORDUTEGIA 19:00etan eta 20:00etan

Doan | Elebiz | Aforo murriztua. Gonbidapenak: berdintasuna@sakana-mank.eus



Mank
S A K A N A
Berdintasun Zerbitzua



Sanjoanetako berbenetara

Urteko egunik luzeena eta gaurik motzena iritsi da: udako solstizioa edo San Juan. Ohitura jarraituz egun hauetan hamaika sendabelar eta landare hartzen dira. Haien propietateak, orain, inoiz baino indartsuagoak dira

K.a. 5000 urte aurretik ospatzen da udako solstizioa, gero, kristautasunarekin, San Joan festa bihurtu zena. Ekainaren 21 aldera izan ohi da ziklo berria hasten denean, eta ekainaren 23an ospatzen da San Joan bezpera eta, 24an, eguna. Egund berezia izan ohi da, eta ohitura eta erritu asko egiten dira egunotan eta horietako tradizio asko lurrarekin harreman zuzena dute: belarrak bildu.

Kris Lizarraga Mariezkurren lorazaina eta basozaina da. "Betidanik izan dut landareekiko harremana. Betidanik atentzioa deitu didate natura eta belarrak". Osasunaren autogestioan interesa zeukan, eta sendabelarren inguruko ikastaroak egiten hasi zen. Besteak beste, Arakilen eta Iruñean egin zituen ikastaroak.

Belarrekiko harremana atzetik datorrela azaldu du Lizarragak: "Nire amonek horren inguruan bazekiten. Anaiari infekzio bat sendatu zioten. Haiek ere erabiltzen zituzten sendabelarrak". Baina amonak nerabe zenean hil ziren, "eta ezin izan zidaten jakinduria hori transmititu". Badaki familian erabiltzen zituztela, baina ez zuen jaso. "Uste dut transmisio hori garrantzitsua dela. Adinduen jakinduria hori oso baliagarria da". Pixkanaka berreskuratzen ari dela esan du, "baina asko galdu dira, oihtura asko galdu dira". Belar biltzailea ez da ogibidea, baina lehen azoketan parte hartzen zuen eta ikastaroak ematen ditu ere.

Solstizioa

Egun hauek bereziak dira. "Diotenez landareen propietateak gorenean daude egun hauen inguruan. Landare asko hartzeko momentu onenean daude". Urteko egunik luzeena da, eta eguz-

ki argi gehiago hartzen dute landareek. Ez da egun bakarra. "Ziklo aldaketa bat da, eta ez da berez egun horretan egin behar. Agian egun horretan oso eguraldi txarra egiten du, eta ez dut egun berezi baten moduan sentitzen. Beste egun batean eguzkia gorenean dago eta urtarotik gertuago sentitzen naiz".

"Sendabelarrei ez ezik, egun magikoa denez ziklo berri bat hasten delako, landareei ere propietate magikoak ematen zaizkie". Landareak San Joan garaian, beraz, babesteko eta garbitzeko ahalmena dutela pentsatzen da ere. Horregatik, egun hauetan jasotako landareak hainbat modutan erabil daitezke, sendabelar bezala edo elementu "magiko" bezala erabileraren arabera.

Eta egun hauetan bere ezaugarri magikoak direla eta, maitasun kontuetarako erabiltzen dira gehien bat landareak: "Berbena, esaterako, Euskal Herrian asko erabili den landare bat da". Berbenera joatearen esamoldea hortik datorrela azaldu du Lizarragak: "San Joan gauean 24:00ak eman baino lehen berbenak jasotzera joaten ziren bere propietate magikoengatik". Maitasuna erakartzeko eta indartzeko balio omen dute. "Emakumeek berbenak hartzen zituzten, sortak egiten zituzten eta gerrian jartzen zituzten".

San Joan belarrak

Berbena ez ezik, San Joan egunetan hamaika sendabelar gehiago hartzen dira. San Joan belarra


"SENDABELARREI EZ EZIK, LANDAREEI ERE PROPIETATE MAGIKOAK EMATEN ZAIZKIE"

orain loratzen ari dela aipatu du Lizarragak, eta San Joan gaua hartzeko momenturik egokiena da. Txikoria sustraia hartzea ere ohikoa da: "Sustrai hau propietate magikoak izateko belaunikoz hartu behar zen, 24:00etan, eta hainbat erritu esanez. Urtean zehar amuleto bezala eraman behar zen oparotasuna eta zoriona erakartzeko". Iratzearen tradizioa oraindik gaur egun ikusten da; Altsasun esaterako, "babes moduan eta oparotasuna erakartzeko". Malba maitasun filtroetan erabiltzen da...

Solstizioaren indarpean hartutako landareak "modu desberdinetan" erabil daitezkeela esan du Lizarragak. "Lore sortak egin daitezke, mazeratu, ukenduak...". Erabilpenaren arabera da. Gainera, "nik egunean zehar sendabelar bezala erabiliko ditudan belarrak hartzen ditut, solstizio egunetan, eguzkiak landare horiek indartzeko. Propietate magikoetarako gauez hartzen dira". Egunez hartzen direnean landareen printzipio aktiboak gorenean daude.

Erabilerak

Etxeak babesteko eta garbitzeko zazpi belar hartu behar dira, "magian beti zenbaki bakoitiak erabiltzen direlako, eta zazpia nahiko berezia delako", eta horiekin sorta bat egin behar da. "Batzuk bere printzipio aktiboekin eta beste batzuk olioarekin: menta, erromeroa, San Joan belarra, nahiz eta olio esentzialak ez izan". Usaina duen sorta bat egin behar da. "San Joan gauean lehortzen utziko genuke propietate horiek erakartzeko, eta hurrengo urteko San Joan gaueko suan erreko genuke". Babesteko erabiltzen den beste landare bat intsusa da. "Bi sorta



Kris Lizarraga Mariezkurren landareekin.

gurutzatuta jarri behar dira atean eta leihoetan". San Juan belarra ere etxea ezezkotasuna garbitzeko erabiltzen da, baita maitasun erritualetan ere.

San Joan egunetan ohiturazkoa da ere San Joan ukendua egitea. Pertsonaren eta kulturaren arabera zazpi landare erabiltzetik 50 landare botatzera iritsi daiteke. "Baina egia esan ez da beharrezkoa hainbeste landare botatzea. Inportanteena da belar antifungikoak, antiinflamatorioak eta abar izatea da. Kantitatea ez da garrantzitsua, printzipio aktiboak ez badira onenak". Horregatik erabiltzen dira landare jakin batzuk horretarako egokienak direnak: San Joan belarra, sarpoila, erromeroa, iodo belarra, zeledonia "batzuk asko botatzen diote", San Roberto geranioa, Venusen zilborra, basalarrosarnen lorea... "Asko dira, eta kantitateekin jolastu daiteke nahi dugunaren arabera". Ukendua egiteko, landareak hartu eta erle argizariarekin eta oliba olioarekin egiten da. "Belarrak sutan jartzen dira, gau

"ETXEAK BABESTEKO ETA GARBITZEKO ZAZPI BELAR HARTU BEHAR DIRA"

osoan uzten da eta hurrengo egunean ukendua egiten da".

Ukendua ez ezik, San Joan belar olioak egin daiteke ere egunotan. "Eguzkitan beratzen hasten da, normalean mazerazioak ez direla eguzkitan egiten, baina kasu honetan printzipio guztiak ateratzeko bai". 40 egunez eta gauez kanpoan egon behar du, "eguzkiaren eta ilargiaren indarra jasotzeko". Rubi kolore oso polita gelditzen dela esan du Lizarragak, eta sendabelar indartsu bat da: "orbaintzaile, erredurendako, zirkulaziorako... antidepressibo bezala erabiltzen da ere". Zorionaren landarea dela dio.

Lurra, ura, sua

San Joan gauak zenbait elementu biltzen ditu: sua, ura eta lurra. "Lurra landareekin gurtzen dugu, eta ohitura da ere iturrietan, ibaietan edo, kostaldean, itsasoan bainatzea purifikatzeko. Sua ere garbitzailea da eta dagoeneko balio ez duena botatzen da, gauza zaharrak eta txarrak atzean uzteko". Elementu hauek elkar aritzen dira etengabe: hartutako landareekin belar ura egin daiteke ere. "Zazpi iturrietako ura hartu behar da eta landareak uretan mazeratzen utziko ditugu". Erritual guztia betetzen da; iturrietara oinez joan eta landareen propietateekin bat egin. "Hurren-



zarragak: "Ez da ahalik eta belar gehien hartzea ahalik eta ukendu gehien egiteko. Ez, bien arteko harreman bat da". Landareak "edozein tokitan" aurki daitezke, baina gero erabili behar direnez "gomendagarria" da errepidetik eta industria guneetatik urrun dauden tokietatik hartzea.

Tradizioa

Udako solstizioa leku askotan ospatu izan da eta ospatzen da. "Esaterako, zeltiarrek ohitura asko zituzten eta jasoa dago. Iberiar penintsulan ere bakoitzak bere tradizioarekin edo errituarekin ospatzen zuten ziklo aldaketa". Adibidez, *Trebole* deitutako abesti bat aipatu du Lizarragak: "Egun honetan lau buruko hirustak bilatzera ateratzen ziren errazago omen zelako aurkitzea, eta, gainera, botere indartsuagoa zuten".

Euskal Herrian eta Aragoi zonaldean tradizio asko mantentzen dira. "Gure arbasoek naturarekin harreman estua zuten, naturan ematen diren ziklo aldaketak noiz ziren ongi zekiten, eta horiek ospatzen zituzten". Ohitura paganoak eta herrikoiak dira. Horietako asko denborarekin aldatu dira eta elementu berriak gehitu zaizkie, "orain horietako asko tradizio kristauaren barruan sartuta daudelako". Inkisizioarekin eta sorgin ehizarekin ere tradizioetako asko galdu ziren.

"Erritu horiek egitea gustatzen zait. Egun berezi bat bezala dela sentitzen dut". Suetan parte hartzen du, bai San Joan bezperako gauean bai 21eko gauean ere. "Egun horietan landareak hartzerantz joaten naiz: olio eta ukendua egiten joaten naiz, babes belarrak hartzerantz joaten naiz eta zakutxoak egiten hasten naiz...". Momentuaren arabera denbora gehiago edo gutxiago eskaintzen dio.

go egunean ur horrekin bainatu edo garbitu behar zara". Urte osorako edertasuna eta osasuna izateko erabiltzen da.

San Joan gauerako babes elementu bezala eta "gauza onak" erakartzeko berbena girnaldak bat egin daiteke eta gauaren bukaeran sutan erre, eta urtean zehar lehortzen utzitako eta infusioetan erabilitako belarren soberakinak sutan suan erre daitezke ere. "Horrela urtero botikina berritzen dugu".

Udako solstizioko erritual hauek gai hauekin interesa duen "edozeinek" egin ditzake. "Suren batera gerturatzen den edozein pertsona ari da magia horretan parte hartzen. Niretako suek, besterik gabe, badute bere magia.

Nahiz eta batzuk parranda egun bezala hartu, magia hori da". Herri bakoitzak bere ohiturak ditu, adarraak, iturrietara joatea eta abar. "eta nik uste hor magia dagoela. Nahiz eta kontziente ez izan. Kontziente izaten hasten bagara magia naturarekiko harreman hori izatea da". Ez da zerbait oso mistikoa. Naturarekiko erlazioa galdu dugula esan du Lizarragak, "eta nik uste ona izango litzatekeela harreman hori berreskuratzea ohitura eta tradizio hauek berreskuratuz". Natura errespetatuz".

Sendabelarrak hartzen direnean, beraz, "baimena eskatzen diogu landareari eta Amalurriari". Produktibismotik haratago doan zerbait dela azaldu du Li-

Sendabelarrak



San Joan belarra


Hypericum perforatum

Ezaugarri antidepressiboa, bakterioen kontrakoa eta antioxidatzailea

Txikoriaren sustraia

Taraxacum officinale

Urdailean eta digestio funtzioetan eragin suspergarriak



Malba

Malva sylvestris

Eztarrirako, azalerako eta urdailerako leungarri

Intsusa

Sambucus

Ezaugarri antiinflamatorioak, erredurentzako sendagarri eta konjuntibitisa sendatzeko



Sarpoila

Thymus serpyllum

Bakterioen kontrakoa, espektoratzailea, antiseptikoa eta apetituaren bizigarria

Iratzea

Pteridophyta

Ezaugarri magikoa eta babeslea



ZUREKIN 1964- GEROZTIK

Amaya

OKINDEGIA



ALTSASU

678 323 403
• Iruña Hiribidea, 48
948 468 026
Zumalakarregi Plaza, 3
670 389 017
• San Juan Kalea, 50
948 562 185
• Otadiko Kristo Deuna, 19

UHARTE-ARAKIL

691 83 41 36
• Mandikoa, 3

VITORIA-GASTEIZ

• Postas, 33
945 148 368
• Arriagako Atea, 12

ETXARRI-ARANATZ

948 461 660
• Kale Nagusia, 4

OLAZTI

948 468 755
• Orreaga Kalea, 1

ARAIA

945 314 572
• Andoni Urrestarazu, 3

Atzera kontuaren kontrako borroka

Izadi Gurasoekin etxera plataforma 'Izadi, espetxean jaiotako atzera kontaketa' dokumentalaren aurkezpenak eta hitzaldiak eskaintzen ari da Sakanan. Atzo Arbizun izan zen, igandean Lakuntzan izanen da eta asteazkenean Altsasun

Eneida C. M. / Erkuden R. B. SAKANA

Izadi Lizarraga Valentziako espetxean 2019ko urtarrilaren 23an jaio zen haur bat da. Kartzelan jaio zen, eta kartzelan bizi da. Baina Espainiako legearen arabera, hiru urte betetzen ditueanean, hau da, urtarrilean, gurasoengandik bereiztu eta espetxetik ateraraziko dute. Izadi Gurasoekin etxera plataforma mak haurraren eskubideak bermatzeko eta familia elkarrekin egotea eskatzen du, eta horretarako istorioa kontatzen duen dokumental bat sortu dute. Orain, ekimenak eta dokumentala aurkezten ari dira. Aurreko astean Altsasuko Gaztetxean egon ziren, atzo Arbizun, igandean, 12:30ean, Lakuntzako kultur etxean egonena dira eta datorren asteazkenean, ekainaren 22an, 19:00etan, Altsasuko Kukuerra elkartean.

Izadiren jaiotzarekin sortu zen Izadi Gurasoekin etxean plataforma, Itxaso Torregrosa plataformako kideak azaldu duen bezala. Izadiren ama Burlatakoa da eta aita Algortakoa, eta bi herriak elkarlanean ari dira egoeraren berri ematen. "Euskal Herrian motxiladun ume pila bat dago, ama edo aita espetxean dituztenak, baina kalean dauden umeak. Holakoetan lanketa berezi bat egiten da ume bat espetxetik ateratzeko denean, haurraren onorio handiak dituelako". Gurasoekin 24 orduz egotetik, "egun batetik bestera", bere besoetatik kentzen dute eta ezagutzen ez duen herri batera eramane dute, "horrek suposatzen duen guztiarekin".

"Txiki hori jaio zela eta zein egoeratan bizi den jakitera emateko lan egiten dugu". Duela hiru urte sortu zen arren, urtarrilean "atzera kontua" hasi zela dinamika aurkeztu zuten, kontuan hartuz, gainera, "motxiladun haur asko zeudela: Izar, Iratirekin egin zen lanketa... orduan, ez genion itzala egin nahi eta erabaki genuen dinamika horiek laguntzea". Iza-



Izadi, Iñigo eta Maria gurasoekin. UTZITAKOA

dik urtarrilean hiru urte beteko ditu, eta bere urtebetetze egunean bere gurasoengandik bananduko dute. "Horri gehitzen zaio Izadiren kasuan pandemiak harrapatu duela barruan eta urte bat baino gehiago darama espetxetik ezin atera, kanpokoekin inongo harremanik gabe eta abar". Orain, Izadi eta bere gurasoak Aranjuezko espetxean daude. Hirurak elkarrekin daude, baina "denak okerrera" egin duela azaldu du Torregrosak. "Egoera ez da batere ona". Sakanan egunotan aurkezten ari diren dokumentalean kontatzen dute "borroka askoren ondoren" nola lortu duten hirurak batera egotea, besteak beste.

"Guk dena zentratzen dugu haurraren beharretan eta haurraren egoeran. Dokumentala egin dugu Euskal Herri mailan egoera ezagutzera emateko". Urteko egitaraua prestatu dute egoera jakinarazteko. Dokumentalaren aurkezpenarekin eta hitzaldiarekin hasi eta irailetik aurrera mobilizazioekin hastea aurreikusten dute. "Eskatzen duguna da Izadik aitarekin eta amarekin etxean egon behar duela. Posible da, gu ez gara sartzen formatu legeletan, baina nahiko

balute bihar bertan atera litezke". Hirugarren gradua ezartzea, baimenak ematea, pisu tutelatu batera eramatea edo familia modu letara eramatea dira aukereta-ko batzuk. "Guk plataforma bezala ez dugu asko sartu nahi irtenbideetan ez dagokigulako guri". Baina ez dira zerbait "ezinezkoa" eskatzen ari da.

Asko aurreratu gabe, *Izadi, espetxean jaiotako atzera kontaketa* dokumentalean Izadiren aitona-amonek haien bizipena eta inpotentzia kontatzen dute, Iñigok eta Mariak, gurasoak, lehenengo pertsonan egoeraz hitz egiten dute eta plataformaren izenean Torregrosak hitz egiten du. "Politika da irudi asko agertzen direlako: espetxe barruko argazkiak eta abar. Sufrimendu horri aurpegia jarri nahi genion". Dokumentala "motza" dela esan du Torregrosak, baina jendea hunkituta ateratzen dela. Emanaldien ondoren, zalantzak argitzeko eta hitz egiteko solasaldia egingen dute. Bestetik, Izadiren kasua gertutik ezagutzeko dokumentalaren aurkezpenetara gerturatze-ko eta plataformaren sareak jarraitze-ko eskatu du Torregrosak: *Izadi Gurasoekin etxera*.



'Kaxa hutsak' proiektuaren irudietako bat. UTZITAKOA

Iheslarien esperientziak gertutik ezagutzuz

'Kaxa hutsak' euskal iheslarien bizipenak erakusten dituen proiektua aurkeztu zuten atzo Olatzagutian

OLATZAGUTIA

Duela hamar urte inguru hasi zuten Gari Garaialdek, Josu Truebak eta Iker Oiz Elgorriagak *Kaxa hutsak* proiektuaren bidea. Helburua euskal iheslarien esperientziak "gertutik ezagutu" eta "silueta beltz horren atzean" dauden istorioak eta bizipenak mahai gaineratzea da, Oizek azaldu bezala. Atzo Olatzin proiektua aurkeztu zuten, eta *Oroimina Loretan*. 30 urte deserrian Josu Lariz Iriondoren inguruko dokumentalaren aurkezpena egin zuen Oizek.

"Euskal gatazkak aurpegi asko ditu", eta iheslarien "aurpegi beltz hauek" bere izaeratik ez direla oso ezagunak aipatu du Oizek. "Leihotxo hori ireki nahi izan dugu, barrura begiratu eta hor nola bizitzen den eta bizi diren pertsona hauek ezagutu nahi izan ditugu". Proiektua herriaratzeko "gogo handia" dute: "jendeak ezagutu dezan gerturatu garen pertsona hauen errealitatea, bizipenak, sentimenduak, nolakoak diren eta jendeak horri buruz hitz egin dezan". Gaiari heltzeko eta gizarteratzeko momentua badela aipatu du Oizek.

Proiektuarekin hasi zirenean "seguruena" ez zuten pentsatzen hainbeste denbora igaroko zela, "herritik ihes egin duen jendeak bezala noiz arte izango den ez dakiten moduan". Ez da erraza izan, "horregatik ere luzatu da hainbeste". Ihesean joan den jendearen bizitzak erretratatu dituzte; Estatuko errepresiotik ihesi joan den jendea, eta beste toki horretan bere bizitza berreraiki

behar izan dute. "Beren mundua irekitzea eskertzen dugu pila bat".

Webdok

Kaxa hutsak webdok formatuko proiektu bat da. Dokumental bat da, "baina ez da ohituta gauden film dokumental normala". Webgune bat da eta bertan pertsona desberdinen bizitzak "webserie" modura agertzen dira, denboraldiak kaleratzen joango direnak. Orain, *Oroimina Loretan* dago ikusgai eta webgunean sartzen den jendeak kapitulu motzen bidez Josu Lariz Iriondorekin erlazioan tutako elkarrizketak ikus ditzake, "bakoitzak bere eritmoan". Olatzin atzo proiektatu zuten *Oroimina Loretan* dokumentala, webgunean ikus daitekeenaren antzekoa da, baina aurkezpenetarako ordu bateko dokumentala osatu dute ere.

Momentuz, bost bat dokumentatu dituztela azaldu du Oizek. Gari Ibarluzea Muruaren istorioa izango da webdok-ean publikatuko den hurrengoa. Postprodukzioan dago. *Kaxahutsak.com* webgunean sartzean bi menu nagusi daude, batean kronologia edo denbora lerro bat ikusten da eta bertan iheslarien bizipenak agertzen dira eta, bestean, mapa bat agertzen da. Mapa horretan joango dira iheslarien dokumentalak "kapituluka" jartzen.

Aurkezpena Olatzin egin zuten herriko iheslari bat dagoelako oraindik ere. Sareren laguntzarekin antolatu zuten emanaldia eta proiektua bere osotasunean aurkeztu zuten eta Oroimina loretan dokumentalaren bertsio luzearen proiektzioa egin zuten.



Nafarroako Emakume Master Cup Pilota Torneoak aurkezpena. Tartean daude etzi Uhartaren ariko direnak. EMAKUME MASTER CUP

Pilotari onenak Uhartean Arakilen

PILOTA / PALETA GOMA Nafarroako Emakume Master Cup Pilota Mistoko finalerdiak jokatu dira igandean Uhartean Arakilgo pilotalekuan, goizeko 11:00etatik aurrera. Arratsaldeko 17:00etan Pilota Goxuko eta Paleta Gomako bina final erabakiko dira

Uhartean Arakilek igande pilotazalea bizitzeko aukera eskainiko du. Nafarroako Emakume Master Cup Torneoetako partidak jokatu dira etzi, hiru modalitateetan: pilota mistoa, pilota goxua eta paleta goma. Horrela, hiru modalitateetako pilotari eta palista onenak egingo dute topo igandean, emakumeen pilota ikuskizun paregabea izan nahi duenean.

Uhartean Arakilgo Udalak joan den urtean erremontea sustatu nahi izan zuen eta Nafarroako Erremonte Txapelketako jardunaldia ekarri zuen herrira. Aurten, aldiz, emakumezkoen pilotaren eta paleta gomaren aldeko apustua egin dute. Udaletik adierazi dutenez, Emakume Master Cupetik eurekin harremanetan jarri eta ekimenaren berri izan zutenean, aurten emakumezkoen pilota sus-

tatzeko ahalegina egitea erabaki zuten. Horrela, 3.000 euroko ekarpena egin dute, eta, trukean, emakumezko pilotari eta palista onenak herrian zuzenean ikusteko aukera izanen dute eta emakumezkoen pilota sustatzeko konpromisoa.

Sarrera dohainik

Igandekoa egun osoko pilota festa izanen da eta sarrera dohainik izanen da. "Kirol eta Gazteria Institutuarekin harremanetan jarrita, pilotalekuan 200 pertsonendako aforoa izanen dugula adierazi digute. Sarrera dohainik

UHARTEKO JAIALDITIK ATERAKO DIRA NAFARROAKO MASTER CUP PILOTA MISTOKO FINALISTAK

izango da eta antolakuntzatik pilotazaleen sartu-irteera kontrolatuko da, eskatutako osasun arauak betetzeko" azaldu dute Uhartean Arakilgo Udaletik, jaialdi "oso erakargarria" izango dela gaineratuta.

Finalerako txartelaren bila

Emakume Master Cup lelopean, hiru txapelketako partidak jokatu dira Uhartean Arakilen. Igandean, goizeko 11:00etatik aurrera, Nafarroako Emakume Master Cup Pilota Mistoko finalerdiak egonen dira jokoan. Lehenengo partidaren Andrea Aldaregiak eta Maite Ruiz de Larramendik Amaia Aldai eta Naroa Agirre izanen dituzte aurkari, eta bigarrenetan Laia Salsamendik eta Olatz Ruiz de Larramendik Olatz Arrizabalaga eta Gentzane Aldai. Laurak momentuko pilotari onenak dira.

Horren isla da, duela aste pare bat Laia Salsamendik Irurtzango Pilota Txapelketa irabazi zuela, Arrate Bergararekin bikotea osatuta, Andrea Aldaregiaren eta Olatz Ruiz de Larramendiren kontra. Partida borrokatuan, sekulako erakustaldia egin zuen Salsamendik. Uhartean Arakilen ariko diren lau bikoteek bi asteburu barru jokatu den final handirako txartela lortzeko duten guztia emango dutenez – finala zuzenean eskainiko du ETB1ek –, goi mailako finalerdiak espero dira eta pilotazaleei Uhartean Arakileren hurbiltzeko deia egin diete.

Arratsaldekoa

Igandean bertan, baina arratsaldean, 17:00etatik aurrera, Uhartean Arakilen pilota festa aurrera jarraituko du. Lehenik eta behin Nafarroako Emakume Master Cup Paleta Gomako bi final jokatu dira, gazteen mailako finala eta 2. mailakoa. Jakinaenez, finalista hauek aurreko igandean Etxarri Aranatzeko jokatu dituzten finalerdi ederretatik ateratu ziren. Gazteen mailan Elaia Zabazak eta Mikaela Mendiolak Irati Garzia eta Maria Eguskiza izanen dituzte aurkari, eta 1. mailakoan Enara Anituak eta Olatz Beitiak Juncal Quevedo eta Olaia Sarasibar.

Eta, azkenik, Nafarroako Emakume Master Cup Pilota Goxuko bi final jokatu dira. Gazteen finalean, Leire Oskozek eta Eri-

Uhartean Arakilgo jaialdia

Nafarroako Emakume Master Cup Torneoak igandeko jaialdia

Nafarroako Pilota Mistoko finalerdiak (11:00etan)

- Amaia Aldai-Naroa Agirre / Aldaregia-Maite Ruiz de Larramendi
- Olatz Arrizabalaga-Gentzane Aldai / Laia Salsamendi-Olatz Ruiz de Larramendi

Nafarroako Paleta Gomako finalak (17:00etan)

- **Gazteak:** Elaia Zabaza-Mikaela Mendiola / Irati Garzia-Maria Eguskiza
- **2. maila:** Enara Anitua-Olatz Beitia / Juncal Quevedo-Olaia Sarasibar

Nafarroako Pilota Goxuko finalak (segidan)

- **Gazteak:** Leire Oskoz-Erika Alvarez / Leire eta Nagore Galeano
- **Seniorrak:** Maria Escudero-Ainhoa Zabaleta / Ania Oronoz-Marie Goyenetche

ka Alvarezek Leire eta Nagore Galeano izanen dituzte aurkari eta seniorren mailako finalean Maria Escudero eta Ainhoa Zabaleta goizuetarrek Iparraldeko Ania Oronoz eta Marie Goyenetchen kontra jokatu dute.



Giro ederra izan zen Etxarri jokatu dituzten finalerdiak.

Etxarri Aranatzeko Pala festa

Igandean Nafarroako Emakume Master Cup Paleta Goma Torneoak finalerdiak jokatu ziren Etxarri Aranatzeko. Palista onenak aritu ziren lanean, tartean sakandarrak. Txapelketako bi final Uhartean jokatu dira etzi, eta beste biak ekainaren 26an Etxarri.

Animatuago, Espainiako Txapelketari begira

DISKO JAURTIKETA June Kintanaren Grupompleo taldea Espainiako Kluben Arteko Ohorezko Mailako Atletismo Ligako finalean 5. sailkatu zen. Disko jaurtiketan onena izan zen bakaikuarra (51,83 m) eta orain Espainiako Txapelketa prestatzen ari da

Maidar Betelu Ganboa BAKAIKU

Asteburuan Espainiako Kluben Arteko Ohorezko Mailako Atletismo Ligako final handia jokatu zen La Nucian (Alacant). Bere klubarekin, Grupompleo Pamplona Atletico taldearekin lehia-tu zen June Kintana Larraza disko jaurtitzaila, eta lan ederra egin zuen. Emakumezkoen disko jaurtiketa irabazi zuen, 51,83 metroko jaurtiketarekin, eta puntu oso baliotsuak lortu zituen bere klubarendako. Barça klubak irabazi zuen liga, Valencia, Playas de Castellon, San Sebastian eta Grupompleo Pamplona Atletico taldearen aurretik. Grupompleo 5. sailkatu zen, estatu mailako klub onenen artean.

June Kintana kontentu dago egindako lanarekin. "Asteburuan ligan lortutakoagatik oso pozik nago. Batez ere, disko jaurtiketan lehenengoa sailkatuta klubarendako 8 puntuak lortu nituelako. Pertsonalki ere pozik nago, aritu naizen azken probetan, kon-



June Kintana Kluben Arteko Ligako finalean, La Nucian. ESPAINIAKO ATLETISMO FEDERAZIOA

troletan eta topaketetan antzeko markatan nabilelako, nahiz eta oinazeak izan. Bizkarra nahiko ukituta daukat, oinazeak dauzkat eta hala eta guztiz ere 51 metro ingurukoetako jaurtiketetan nabil. Beraz, alde horretatik ongi"

azaldu du disko jaurtitzaila bakaikuarrak.

Maiatzaren 23an eta 24an Oviedoko kontrol batean aritu zen eta 50,40 metroko jaurtiketa egin zuen, eta uztailearen 3an, Huelvako XVI. Iberoamerikako Mee-

tingean 50,18 metrokoa. Horretaz gain, ekainaren 5ean Los Corrales de Buelnako Sari Nagusian (Kantabria) parte hartu zuen eta 51,89 metrora jaurti zuen diskoa.

Gogotik entrenatzen ari da

Bere hurrengo helburua ekainaren 25etik 27ra Getafen jokatu den Espainiako Atletismo Txapelketa Absolutua da. "Bi aste hauetan gogotik entrenatuko dut, Espainiako Txapelketara ahalik eta hobekien iristeko. Teknikoki ez nabil oso fin, aipatutako oinaze horiengatik, baina ea aste hauetan min horiek arintzen diren eta ahalik eta hobekien iristen naizen Getafera" nabarmendu du June Kintanak.

Espainiako Txapelketaren ondoren, uztailearen 10ean L'Hospitalet de Llobregaten jokatu den Federazio Autonomikoen Arteko Espainiako Txapelketan ariko da. "Udako denboraldia asteburu horretaraino luzatuko dut, eta ahalik eta mailarik onena eman nahi dut. Gero oporrak hartuko ditut. Animatuago nago, baina urte gogorra izan da hau; dagoena onartu beharra dago, eta dagoenarekin ahalik eta hobekien egin" azpimarratu du.

Izan ere, urte gogorra izaten ari da hau atleta bakaikuarrarendako. Maiatzaren erdialdean Spliten (Kroazia) jokatu den Europako Jaurtiketen Kopan ezin izan zuen aritu, ezta maiatzaren bukaeran Polonian jokatu den Europako Nazioen Txa-

pelketan ere, COVID-19 gairiditu eta gero, proba horietara joateko aurretiko PCRan oraindik positibo eman zuelako. Proba serologikoak egin zituen eta gaixotasunaren antigorputzak ditu Junek, baina PCRan positibo ematen jarraitzen zuenez, eta Europako Federaziotik soilik PCR negatiboek balio dutenez, ezin izan zen aritu. Berarendako kolpe latza izan zen, Joko Olimpikoei begira Europako Kopan jokoan zeuden puntuak oso garrantzitsuak zirelako. Beraz, Europako Txapelketei eta han lortzeko aukera zituen puntuei agur esan zien sakandarrak, eta, esan bezala, Espainiako Atletismo Txapelketa Absolutua eta Espainiako Komunitate Autonomoen Arteko Atletismo Txapelketa dira bere hurrengo helburuak. Ea bide onean jarraitu eta lan ona egiten duen.

"OINAZEAK DITUT, BAINA ANTZEKO MARKATAN NABIL ETA POZIK NAGO" JUNE KINTANA

"AHALIK ETA HOBEEKIEN HELDU NAHI DUT ESPAINIAKO TXAPELKETARA" JUNE KINTANA



MARTIN EARLY

Adrian Martinezen lehena

TXIRRINDULARITZA Igandean kadeteen mailako Lacturale Trofeoa jokatu zen Undianon (61 km) eta Sakana Group-Aralar taldeko Adrian Martinezek bere palmaresa mustu zuen, helmugara bakar bakarrik heldu eta proba irabazita. Beste bi sakandar Top Tenean sailkatu ziren: Asier Etxeberria (Quesos Albeniz) 4., eta Manex Zufiaurre (Sakana G.) 7.



UTZITAKOA

Ander Villalobosen garaipena

TXIRRINDULARITZA Junior mailako Ander Villalobosek (Quesos Albeniz-Burunda) bere lehendabiziko garaipena lortu du. Tafallan boskote batek jokatu den esprintean gailendu zen altsasuarra. Jon Erdozia (Sakana G.) 2. izan zen eta Mikel Uncilla (Quesos Albeniz) 4. Top Tenean, Sergio Lopez (Quesos Albeniz) 6. sailkatu zen eta eta Unai Garro (Sakana G.) 10.

ARETO FUTBOLA Irurtzun Futsal Campusean izena emateko garaia

Roberto Martil (Osasuna Magna Xota) eta Dani Saldise (Inter Movistar) jokalariek profesionalen antolatutako Irurtzun Futsal Campusean uztailearen 26tik 30era izanen da, Irurtzungo kiroldegian, goizeko 9:30etik 13:30era arte, hamaiketako barne. Bertan 5 eta 15 urte bitarteko neska-mutuek eman dezakete izena 649 092 346 telefonoan. Prezioa 90 eurokoa da. Martilez eta Saldisez gain, Xotako emakumeen taldeko Iruñe Goikoa jokalaria eta Osasuna Magna Xotako Ion Cerviño jokalaria izango dira campuseko monitoreak. Halaber, Osasuna Magna Xotako Asier Llamas atezain irurtzundarra gonbidatuko dute.



Gerardo Montero, Irati Irigoien, Ane Gil, Erkuden Moreno, Leire Etxaniz, Rania Mabchour eta Aaron Rodriguez, entrenamenduan.

Espainiakoa prestatzen

TAEKWONDOA Bargagain Taekwondo Taldeko Leire Etxaniz, Rania Mabchour, Erkuden Moreno eta Irati Irigoien hilabete bukaeran Espainiako Taekwondo Txapelketan lehiatuko dira Nafarroako selekzioarekin. Gerardo Monterorekin ari dira azken prestaketak egiten

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU
Altsasuko Bargagain Taekwondo Taldean kontentu egoteko makina bat arrazoi dituzte. Batetik, Bargagaineko bi talde –emakumezkoen junior mailako taldea eta emakumezkoen kadete mailako taldea– Nafarroako txapelketan izan direlako. Bestetik, Bargagaingo lau taekwondolarik –Leire Etxaniz Claver, Rania Mabchour, Irati Irigoien Crespo eta Erkuden Moreno Muñoz– Nafarroako selekzioarekin Alacanten jokatu diren Espainiako Taekwondo Txapelketetan parte hartuko dutelako. Eta, bukatzeko, Bargagain Taekwondo Taldean izena eman dutenen kopurua nabarmen igo delako. Aurten 60 neska-mutiko trebatu dira –pandemiaren eraginez gutxitu egin zen kopurua– eta datorren ikasturterako 100 ikasle- bueltan egongo dira.

Horren guztiaren berri eman du Bargagaingo entrenatzaile Gerardo Montero Riverak. Espainiako Txapelketetan ariko diren Bargagaingo lau ordezkariak entrenatzen ari da. "Pandemiagatik denboraldi hau zaila izan da guztiendako. Entrenatzen jarraitu izana eta maila manten-

du izana... mentalki ez da batere erraza izan, eta lortu dute" adierazi du, bere taldeaz harro. Euren batera Aaron Rodriguez ohiko mugimenduak entseatzeko ari da, eta Ane Gil Irati Irigoienekin sparringa da. Monterok hainbat mugimendu zuzendu dizkie eta txapelketan izan beharreko jarraera aipatu die. Nabaritzen da harreman ona dutela; giro oso ona dago Altsasuko Garbitokian.

Espainiakorako gogotsu

Ekainaren 26an eta 27an jokatuko da Espainiako Txapelketa, Benidormen. Kadete mailan Leire Etxaniz eta Rania Mabchour lehiatuko dira. Euren lehendabiziko parte hartzea izango da. Erkuden Moreno Espainiakoa aritu izan da, baina aurten 21 urtez azpiko maila mustuko du. "Uste dut lan ona egingo dutela. Ea eroso aritzen diren. Espainiako Kopan Leirek zilarra lortu

"MENTALKI EZ DA BATERE ERRAZA IZAN MAILA MANTENTZEA, ETA LORTU DUTE" GERARDO MORENO

zuen, baina Espainiako Txapelketan parte hartze handiagoa egongo da. Erkuden 21 urtez azpiko kategoriako txikiena da, baina 46 kiloz azpikoan dagoenez, ez dut uste oso nagusien kontra aritzea egokituko zaionik" azaldu du. Irati Irigoien 21 urtez azpiko 62 kilotan ariko da. "21 urtez azpikoan bere bigarren parte hartzea izango da. Azken txapelketan brontzea lortu zuenez, ea gutxienez brontzea lortzerik duen..." dio, txantxetan, Monterok. Irribarre egiten du Iratik.

Nafarroako txapeldunak

Nafarroako taldekako txapeldunak erabakitzeko, banaka egindako lana hartzen da kontuan. "Junior mailan, Erkuden Moreno Nafarroako txapelduna izan zen, Naroa Olmosek zilarra lortu zuen eta Ane Gilek brontzea. Eta kadeteetan Leire Etxanizek eta Rania Mabchourrek urrea lortu zuten eta Aiala Dorronsorok zilarrezkoa. Beraz, Bargagain taldekako Nafarroako txapelduna da bi mailatan" azaldu du Morenok. Emakumezkoen haurren mailan Bargagain 3. sailkatu da, Zoe Lanzek eta Hajar el Alaouik lortutako urreari eta zilarrari esker.

Garbitokiko entrenamendu saioa



Gerardo Montero Irati Irigoien eta Ane Gilen entrenamenduari so.

Irati Irigoien brontzea defendatzera. Urdiaindarrak entrenamendu saio gogor bezain ikusgarria egin zuen bere taldekide Ane Gilekin. Azkeneko Espainiako Taekwondo Txapelketan Iratik brontzea lortu zuen eta postua defendatuko du.



Erkuden Leirerekin, eskuinean, eta Rania Anerekin, ezkerrean.

Erkuden Moreno 21 azpikoan. Ez da altsasuarraren lehendabiziko Espainiako Txapelketa izango, baina aurten kategoriatik mustuko du. 21 urtez azpiko borrokalari txikiena izango da. Raniarekin eta Leirerekin entrenatu zuen, txandaka.



Leire eta Rania ahalegin betean.

Leire Etxanizen eta Rania Mabchourren debuta. Biek lehenengoz hartuko dute parte Espainiako Taekwondo Txapelketan. Kadete mailan lehiatuko dira eta aritzeko gogotsu daudela adierazi dute, Morenok eta Irigoienek bezala.

Zailtasunak gaindituz, polita

FUTBOLA Pandemiak baldintzatutako 2020/2021 denboraldia despeditu da eta Lakuntzako Lagun Artea futbol taldeak, guztiaren gainetik, balorazio positiboa egin nahi izan du. 1. Maila Autonomikoa mustu dute eta kategoria txikietakoak ongi ibili dira

Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA Lakuntzako Lagun Artea futbol klubak asteburu honetan despeditu du 2020/2021 denboraldia, kimuen taldeak bihar Lekunberrin jokatu duten azken jardunaldiarekin. Klubeko gainontzeko taldeek -haurrak, kadeteak, jubenilak eta 1. Maila Autonomiko talde nagusiak-, aurreko asteburuan despeditu zituzten lanak. Lagun Artea klubeko futbol koordinatzaile Asier Arregi Alegriak denboraldiaren balorazio positiboa egin du. "1. Maila Autonomikoan aritu gara lehenengoz eta kategoria txikiko taldeak ere ongi ibili dira. Ezin dugu gehiago eskatu. Jada datorren denboraldia prestatzen gaude. Hemen lanak ez dira bukatzen, topera gaude" azaldu du.

Pandemiak guztiz baldintzatu du denboraldia. Dagoeneko ia ahaztuta dugu, baina futbol ligak jokatu izana asko izan da, txapelketa bera hasia kolokan egon baitzen. Lagun Artea otsailaren 14an mustu zuen kategoria berria, 1. Maila Autonomikoa, etxean, Garesen kontra, eta bana berdin du zuten lakuntzarrek. Azkeneko jardunaldia igandean jokatu zuten, etxean eta 2 eta 1 hartu zuen mendean Burladés. "Kategoria hau, 1. Maila Autonomikoa, 3. mailaren eta preferente mailaren artean dago, eta duela sei-zazpi urte sortu zuen federazioak. Gu izan gara kategoria berri honetan aritu garen Sakanako lehen taldea, eta alde horretatik pozik gaude. Igandean jokatu genuen ligako azken partida. Jokalariak lehertuta bukatu zuten, beroagatik, baina garaipen batekin agurtu dugu denboraldia eta hori oso polita da" nabarmendu du Arregik. Iñaki Berastegik eta Ansorenak sartu zituzten txurien bi golak, eta arbitroak

Unai Bakaikoak sartutako gola baliogabetu zuen, jokoz kanpo zalantzagarrri batean, baina garaipenari esker, sailkapeneko 8. postuari eustea lortu zuen Lagun Artea (17 puntu).

Maila berriari tamaina hartzen Nafarroako Futbol Federazioak hasieratik adierazi zuen aurten ez zela jaitsierarik egongo, eta alde horretatik lasaiago aritu dira taldeak, kategoriari eusteko presio hori gabe, baina behin txapelketa hasita, talde guztiek ahalik eta hobekien aritu nahi izaten dute. "Kategoria berria probatzea zen asmoa, mailari tamaina hartzea, eta futbolera jokatzeko. Pandemia dela eta, horrekin konformatzen ginen, jokatze hutsarekin. Baina, bada-kizu, behin lehiazten hasita, inork ez du azkena sailkatu nahi, eta talde guztiek dena eman dugu. Hasiera zaila izan zen, baina gureta urtea polita izan da" ondorioztatu du Lagun Artea futbol koordinatzaileak.

Hasieran kategoria berriari aritzea kosta egin zitzaion. "Preferentetik genitozen. 1. Maila Autonomikoa maila nagusiagoa da, eta nabaritzen da. Talde oso onak daude, 3. mailatik jaitsi direnak, Iruñerriko talde garrantzitsuak, herri handietako talde indartsuak... eta gurea bezalako herri txiki bateko talde batekin alderatuta, aldea dago. Gure taldea sakandarra da %100ean, eta talde handi horien kontra lehiaztea ez da erraza" dio Arregik.

"1. AUTONOMIKOAN DEBUTATU DUGU ETA MAILA TXIKIETAKOAK ONGI IBILI DIRA" ASIER ARREGI

Jakina da hiriko eta herri handietako klubek jokalaria asko dituztela eta onenak hautatzen dituztela. Herri txikikoek, aldiz, ez dute horrenbesteko aukera, eta alde horretatik, meritu gehiago dute. "Sakanako talde bat gara, eta duela urte batzuk zehaztutako filosofia horrekin jarraituko dugu, bertako jokalariekin. Badakigu aurkariak nolakoak diren, baina guk argi dugu" gaineratu du lakuntzarrek.

Behetik gora

Lagun Artea hasiera mugitua izan zuen, baita aulkian ere. 2019/2020ko entrenatzaile bera, Jesus Martin Davila, izan zen hasierako entrenatzaile. "Baina lehen jardunaldia jokatu Jesusek taldea utzi zuen, eta nik hartu behar izan nuen talde nagusia entrenatzeko ardura. Kategoria txikietako taldeen entrenatzaile izan naiz beti, eta gogotsu hasi nintzen, baina halako kategoriak ezberdinak dira, askoz ere gehiago eskatzen dute, eta ez nengoen horretarako mentalizatuta. Maila pertsonalean ez nuen oso ongi pasa, gogorra egin zitzaidan. Horregatik, hoberena alde batera egitea izango zela erabaki nuen. Juntak ongi ikusi zuen, eta Jandro Gastaminza entrenatzaile iruindarra ekartzea lortu zuen. Eta oso ongi" kontatu du Asierrek. Aurtengoa trantsizio urtea izango zela argi zuten, eta hala izan da ildo guztietan. "Jandro 3. mailatik zetorren, esperientzia handiko entrenatzaile da, eta nabaritu zen. Taldea altxatu zuen eta beste ilusio bat eman zion taldeari" aipatu du Arregik.

Guztia kontuan hartuta, denboraldiaren balorazio baikorra egin du. "Ez genuen espero denboraldia horren ondo bukatuko



1. Maila Autonomikoan debutatu duen Lagun Artea talde argazkia atera zuen igandean Zelai Berrin

genuenik. Jokalariak gogoz hartu zuten kategoria berria, pauso bat eman zuten aurrera eta ikusi dute beraiek kategoria honetan lehiatu ahal direla. Lortu dute. Gainera, Jandroren esperientziarekin, bi faktore oso garrantzitsu elkartu dira eta esanen nuke oso urte polita izan dela" ondorioztatu du.

Datorrena prestatzen

Denboraldia bukatu berri, datorrena prestatzen hasi dira Lagun Artea klubeko juntako kideak. "Jandrok ez du taldean jarraituko, beste eskaintza bat izan duela, berari hobe dator kion. Pena da, baina gauzak horrela dira eta beste entrenatzaile bat aurkitzeko lanetan gaude murgilduta. Denboraldi bat amaitzerako, datorrena erdi planteatuta izan behar duzu, bestela zezenak harrapatzen zaitu" dio futbol koordinatzaileak.

"TXIKIEKIN LAN EGIN BEHAR DA; MAILA GUZTIETAKO TALDEAK EGOTEA SARIA DA" ASIER ARREGI

Harrobia, primeran

Lagun Artea kimuen, haurren, kadeteen eta juniorren taldeak ditu. Harrobia, badago. "Iaz, klubeko historian lehen aldiz, kategoria guztietako taldeak izan genituen, eta aurtengoa bigarren denboraldia izan da. Alde horretatik primeran gaude. Lakuntzako jokalariek gain, Arbizu, Arruazu, Uhartte Arakil, Altsasu, Olazti, Irurtzun... Sakanako guztiko jokalariek ditugu. Jokalari horiek gugana etortzea eta gurekin egotea eskertzekoa da, euren laguntzarekin aurrera egiten dugulako denok. Gureta ez dago sari hobeagorik" azaldu du Arregik, eskertuta. Kategoria txikien entrenatzaile dela igartzen zaio, haurrei sekulako garrantzia ematen baitie. "Haurrei garrantzia eman behar zaie, beraiekin lan egin behar da, taldeko etorkizuna direlako. Kategoria guztiak egotea ere euren saria da" gaineratu du.

Kategoria txikiko taldeak ongi aritu direla dio futbol koordinatzaileak. "Kimuen Liga aurten Nafar Kirol Jokoetan sartu dute. Gustura ibili dira, eta larunbatean, goizeko 10:00etan, Beti



denboraldiko azken partidari. LAGUN ARTEA

Kozkorren kontra jokatu dugu azken partida, Lekunberrin". Haurrak, kadeteak eta jubenilak ere ongi aritu direla dio. "Entrenatzaile guztiei eskerrak eman behar dizkiegu, lan handia egiten dutelako. Zenbait jokalaririk goiko kategorietan aritu izan dira tarteak. Esaterako, kimuen mailako batzuk haurren mailan aritu dira, haurren mailako batzuk kadeteetan... Horrek esan nahi du beraiek ere gauzak ongi egiten ari direla". Kadeteak kopako final laurdenetara iritsi ziren, eta haurren mailan ere lan polita egin du Lagun Arteak.

Bestalde, jubenilen taldeak jubenilen 1. maila mustu du aurretan, eta kategoriara ohitzea pixka bat kostatu zitzaizela aitortu du Arregik, futbolaz kanpoko arrazoiengatik. "Lakuntzakoek gain, Arbizukoak eta Etxarrikoak diren hainbat jokalaririk ditugu. Pandemiagatik egon diren itxiera perimetralak eta konfinamenduak zirela eta, talde jarraipen hori izatea kosta zaigu. Baina, beno, gustura aritu dira. Gainera, Altsasu taldea maila berean zegoen, eta sakandarren arteko derbi horiek politikak izaten dira" gaineratu du Arregik.

Udako Futbol Campusa

Aurki abiatuko den Lagun Arteako Udako Futbol Campusean du burua Asier Alegriak. 2009 eta 2016 urteen artean jaiotako neska-mutilek eman dezakete izena, eta hiru aste daude au-

Lagun Artea

2020/2021 denboraldiko
1. Maila Autonomikoa

- **Atezainak:** Garikoitz Maiza eta Josu Arroki.
- **Defentsak:** Kepa Olias, Ion Olo, Mikel Cordero, Mikel Agirre, Jose Maria Ripa, Xabier Gasco eta Jon Arraiza.
- **Erdilariak:** Iñaki Berastegi, Iñaki Mendieta, Iokin Lobo, Jonathan Davila, Nabil Essobai, Javier Amezketa, Gaizka Sagarzazu, Gorka Hernandez eta Iker Ansorena.
- **Aurrelariak:** Unai Bakaikoa, Unai Zubiria eta Maurice Gomis.
- **Entrenatzailea:** Jandro Gastaminza Retamosa.

keran: ekainak 23, 24, 25, 28 eta 29, uztailak 19-23 eta abuztuak 16-20. (Informaziorako, 636 509 741 telefonoa). Bera eta Adur Kanpo izango dira monitoreak. "Iaz oso harrera ona izan zuen gure lehenengo campusak, baita aurretan ere. Ongi hasi da uda" dio Asierrek. Campusa Zelai Berrin izanen da. "Zelai Berrin talde nagusia aritzen da, eta campusari esker, txikiak bertan aritzea lortzen dute eta hori garrantzitsua da beraiendako. Jokalari nagusiek bezala belarrezko zelaietan jokatu dezake-

tela sentitzen dute" azaldu du Alegriak.

Kluba, osasuntsu

Urte gogorrak izan eta gero, Lagun Artea kluba une gozoan dagoela agerikoa da. "Askotan hitz egiten dugu jokalariek ezin lortu egon ginen urteez, baina egun osasuntsu dago kluba, sekulako harrobia du" adierazi du kirol koordinatzaileak, pozik. Junta ere berri zuten, duela hiru denboraldi, Lagun Artea erregional mailara jaitsi zenean. "Orduko juntakoek laguntza eskatu ziguten eta 7-8 pertsona berri animatu ginen juntara sartzera, talde hau berriro berpiztera. Lana eginez lortu dugu berriro dena ongi jartzea: talde nagusia, harrobia, Zelai Berri eta guztia" gaineratu du. Javier Hernandez da presidentea, Jesus Zubiria presidenteordea, Josu Arraiza diruzaina, Oscar Maiza idazkaria, Diego Cruz koordinatzailea eta Asier Arregi, Javier Gasco, Javier Andueza, Juan Ignacio Mendieta, Juan Ignacio Maiza eta Joxe Agirre bokalak.

Datorren denboraldiari begira, gogotsu daude Lagun Artean, ilusioz. "Itxiera perimetralak, konfinamenduak... oso nekagarria izan da, kategoria txikietan bereziki. Liga hasiko ote zen, eskatutako protokoloak betetzea... Lan asko eginez atera gara aurrera. Denboraldia ongi bukatu izana eta datorreneko gogotsu egotea, oso garrantzitsua da" nabarmendu du Asierrek.

Datorren denboraldia normal hasiko delakoan daude. "Oraindik Federaziotik ez digute ezer esan, baina hala uste dugu". Birtartean, lana lanaren atzetik. "Taldea nagusiko entrenatzaile lotzen ibiliko gara batzuk, eta beste batzuk datozen denboraldirako Zelai Berriko zelaia prestatzen... Hemen ez gara gelditzen" dio irribarrez. Izan ere, belarrezko zelaia ondo egoteak nolako lana duen. "Eskerrak hemen ordu asko sartzen dituzten jubilatuek pare bat dugula, bestela..." gaineratu du Arregik.

Jokalarien plantilla zehaztuko da ondoren: nor jarraituko duen, jubeniletatik nor igoko den... "Ildo honetan Unai Bakaikoa azpimarratu nahiko nuke. 38 urte ditu, beteranoena da eta talde nagusian jokatzeko eta haur txikiak erakusten jarraitzen du. Aita izan da, eta azken partidaren opari txiki bat egin genion. Hemen taldean jarraitzea animatzen diogu" egin dio keinua Arregik. Azkenik, Guaixeren lana eskertu du. "Herri txiki bateko talde bat gara, eta Guai-xen gure jarraipena egitea guretzako oso polita da. Eskerrik asko". Zuei.

"KONFINAMENDUAK, ITXIERAK, OSASUN NEURRIAK... URTE GOGORRA IZAN DA" ASIER ARREGI

Altsasu erregional mailan laugarren

Erregional mailako Altsasu futbol taldeak igandean despeditu zuen 2020/2021 denboraldia, Iruña B taldearen kontra Taxoaren jokatuako partidari. Erregional mailako 5. multzoko 3. postua lortzea zuten jokoan bi taldeek eta, horregatik, partida oso lehiatua izan zen. Altsasu 1 eta 2 aurreratu zen, baina deskontuan Iruñak berdinketaren gola lortu zuen, eta Altsasuk ia eskura izan zuen 3. postuari agur esan behar izan zion. Horrela, Altsasu 4. sailkatu da (26 puntu), Iruña B hirugarrenetik puntu bakarrera (27 puntu).

Nolanahi ere, pandemiak baldintzatutako liga honetan itxura oso ona eman du Altsasuk. Zailtasunen gainetik taldea osatzea eta liga aurrera ateratzea lortu dute, 4. sailkatzea, eta orain datorren denboraldia prestatzea da Altsasu Kirol Elkarteari dagokiona. Elkarteak ahalegin berezia egin du kategoria guztietako taldeak ateratzeko, baita emakumezkoen Futbol 8 taldea ere, eskertzekoa.

Altsasu Gazteen Nazional mailara igo daiteke

Jubenilen 1. mailako Altsasuk, primerako denboraldia egin eta gero, Gazteen Nazional Mailara igotzeko aukera du. Horretarako, Oberenaren kontra igandean 18:30ean Dantzalekun jokatu den igoera faseko 2. kanporaketako partida irabazi beharko luke. Altsasu animatzera Dantzalekura joateko deia egin du klubak.



Maitane Vilariño, Osasuna talde nagusian lehen gola sartutakoan. OSASUNA

Osasunak Vilariño lotu du

Maitane Vilariño Mendinueta Osasuna talde nagusiko jokalaria izango da datorren denboraldian. Aurten Osasuna B-n hasi zen olaztiarra, baina talde nagusian debutatu, eta jokatuako 8 partidatan maila bikaina eman eta 2 gol sartuta, talde nagusian tokia egin du.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

LARUNBATA 19

ZIORDIA Su txikian bira mundiala. *Su txikian dokumentala eta liburuaren aurkezpena eta bira bukaerako jaialdia.*

Joxemi Zumalabe Fundazioak antolatuta.
12:00tatik aurrera, Amaraunan.

ALTSASU Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako txikien jaialdia: *Zeruaren indarra. Ortzadarra.*
12:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako haurren jaialdia: *Zeruaren indarra. Eguzkia eta ilargia.*
17:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako gazte eta helduen jaialdia: *Zeruaren indarra. Ekaitza.*
19:30ean, lortia kultur gunean.

IGANDEA 20

ALTSASU Lekeitiotik Eara ibilaldia eginen du Altsasuko

Mendigoizaleak taldeak.
08:00etan, egoitza.

LAKUNTZA Izadi, *espetxean jaiotako atzera kontaketa dokumentalaren aurkezpena eta solasaldia.*
12:30ean, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Moonshine Wagon taldearen musika emanaldia.
19:30ean, plazan.

ALTSASU *Euskal Presoak Euskal Herrira* elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTEARTEA 22

ALTSASU *Izadi, espetxean jaiotako atzera kontaketa dokumentalaren aurkezpena eta solasaldia.*
19:00etan, Kukurreka elkarte.

ASTEAZKENA 23


ALTSASU San Joan Bezpera. *Elkartasun bazkaria.*
Tiketak Lezea, Arkangoa eta Gaztetxean 10 euro.
14:30tan, Gaztetxean.

ALTSASU San Joan Bezpera. *Gamelu Flamenko taldearen kontzertua.*
19:30tan, Gaztetxean.



EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 18




Larunbata, 19



Igandea, 20



Astelehena, 21



HIZKETAN
beleixe

Elkarrizketa guztiak
www.guaixe.eus

- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com · www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU** · Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

IRAGARKI SAILKATUAK

LUR SAILA

SALGAI

Etxarri Aranatz, Enfermogurutze dermianoan, 8500m²-ko lursaila salgai: guztiz hesituta dago eta 8 metro eta erdiko sakonera duen putzua du. Deitu 669 809 955 tfnora.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Irurtzungo Pikuxar taberna berrian lan egiteko zerbitzari bila: Tabernetako zerbitzari bezala esperientzia, euskararen ezagutza eta txandaka lan egiteko prestutasuna beharrezkoak izango dira. Asteko 37 orduko kontratua edo asteburuetakako kontratu partzialak eskaintzen dira. Interesatuak bidali Cva pikutaberna@gmail.com helbidera. Jasotako CV-ekin Lan Poltsa osatuko da.

GALDUTAKOAK

Altsasun betaurreko graduatuak galduta: Astelehenean, San Juan kale inguruan, estutxe eta funda beltz baten barruan. Aurkitzen badituzu, mesedez, deitu 686 662 241 tfnora.

IKASTAROA

Gazteen parte hartze aktibo ikastaroa Altsasun eta Etxarri Aranatz: Urtebete eskolaren eskutik; parte hartu, jolastu, hausnartu eta partekatu zure ideiak ekintzara eramateko. Uztailaren 19, 20, 21 eta 22an goizeko 10:00etatik 14:00etara. Matrikulak eta informazioa Oinarriko Gizarte Zerbitzuetan; Altsasun 948 467 662 telefonora deituz edo 616 841 995 WhatsAppera idatziz, eta Etxarri Aranatz 948 460 752 zenbakian edo 679 534 481 WhatsAppean.

OHARRAK

Etxarri Uden euskiasen izena emateko epea zabalik: Ekainaren 28tik uztailaren 30era izango da, goizeko 09:00etatik 13:00etara. Prezioak: 5 asteak apuntatuta 200 euro, astea apuntatzeko aukera ere badago, 40 euro asteko. Deitu 681 177 103 tfnora edo idatzi udanetxarri@euskias@gmail.com helbidera.

Irurtzungo Udal Musika Eskolan izena emateko epea zabalik: Ekainaren 18, 21 eta 21an Musika Eskolara gerturatzuz, 16:30tik-20:00etara ordutegian. Musika tailerra (4-5 urteko haurrentzat), hizkuntza musikala (6 urtetik aurrera), tresna taldeak, gitarra taldea, trikitixa etab. Informazio gehiago 948 600 702 telefonon.

Arakilgo Udako Aisialdi Kanpua: Aurtengo egoeira bereziari erantzunez haur kopuru gutxiagoko bi txanda antolatuta dira. Bietako bat aukeratu behar da: 1. Txanda Uztailak 19-30 eta 2. Txanda abuztuak 2-13. Adina 5-12 urte bitartean. Ordu-egia goizeko 10:00etatik 13:00etara. Prezioa: Plaza mugatuak direnez aukeraketa irizpideak honako hauek izango dira: 1. Arakilen erroldatuak, 2. Arakilen bigarren etxebizitza dutenak, 3. Irurtzunen erroldatuak eta azkenik beste guztiak. Arakilen erroldatuak 40€ eta ez erroldatuak 50€. Izena emateko azken eguna uztailak 2. Informazio gehiago 634 584 223 telefonon.

Lakuntzako festetako zapien banaketa: 2020 urtean jaito eta Lakuntzan erroldatuta ez dauden haurrek jaietan zapia jaso nahi badute, udaletxean izena eman beharko dute, uztailaren 23a baino lehen.

Gaua Urbasan pasa nahi duzue zuk egindako VI-VAC batean? Lo egitera mendira Biziraupeko tailerra! Zatoz eremu karstiko honetan dagoen 3Dko mundua ezagutu eta orientatzen ikastera. Menditik 10 km ibiltzeko gaitasuna duten 16-18 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Ekainaren 26an 15:00etan hasi eta ekainaren 27ko 13:00ak arte. Informazio gehiago eta izen ematea Mankeko 948 464 866 edo 648 070 710 telefonon edo kirolak@sakana-mank.eus / anitzartean@sakana-mank.eus e-postetan. Plaza mugatuak direnez, izen ematea ezinbestekoa da, epea ekainaren 21ean amaitzen da. Seguritasun neurriak bermatuko dira. Prezioa 25 euro.

Etxarri Aranazko Udal musika eskolan, 2021/2022 ikasturterako matrikulazioa: ekai-

naren 9tik ekainaren 30a arte, udal bulegoan edo www.etxarriaranatz.eus web orriaren bitartez. Ez da plaza bermatuko abuztuaren 16tik irailaren 3ra arte izena ematen dutenen artean.

Erabilgarri ez diren erradiografiaren bilketa kanpaina farmazietan: Nafarroako Farmazilarien Elkargoak eta "Mugarik gabeko Farmazilaria" GKE-k bultzatutako kanpainak helburu bikoitza du: batetik, ingurugiroa zaindu, ondo birziklatzen ez diren erradiografiak oso kutsakorrek direlako eta bestalde, duten zilarren salmentarekin Gobernu Kanpoko Erakundearen proiektuetara funtsak bideratzea. Erradiografiak bakarrik eman, sobre, informe eta bestelakoak kendu eta gero. Kanpainak azaroaren 1era arte iraungo du.

Uharte Arakilgo haurren zapiak: 2020an jaito eta Uharte Arakilen erroldatuta dauden umeei, aurrerago zapia banatuko zaie. Erroldatuta ez dauden familiek eta interesa dutenek, ekainaren 20era arte izena eman dezakete info@uhartearakil.com helbidera idatziz. 2019. urtean jaitotako haurren zapiak ere banatuko dira.

Iruñean Laba egitasmoa aurrera eramateko diru ekarpen bila: Euskara eta euskal kulturarentzat gune bat sortzera doaz Iruñeko Gazteluko plazan; Kulturagune bat, topagune bat, sorgune bat eta denon ekarpenekin eraiki nahi da Laba egitasmoa. Diru bilketaz aparte partaide aktiboak bilatzen dira etengabe birrasmatzen den gunea izan dadin. Diru aportazioa egiteko sartu <https://labur.eus/itsulapiko> Itsulapiko plataforman. Informazio gehiago lortzeko edo harremanetan jartzeko, kuxkuxeatu www.laba.eus web orria, eta twitter / Instagram @labasara kontuak.

Mikel Arregiri buruzko liburua honako tokietan erosi daiteke: Lakuntzan Ogi berrin, Aliproxen eta Estankoa; Etxarri Aranatz Xaxeta liburu dendan eta Altsasun Arkatz liburu dendan. 15 eurotan dago salgai

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

ESKELA



Txomin Gartzandia Goñi



Xinaurriak ziona esan xoriari erran ahal daiteke mundu guziri alferra dela usu gose eta egarri lot gaitezen beraz bihotzez lanari lurreko eta zeruko egitekoari

Eskerrik asko, Txomin

Etxarri Aranazko SORTU

ESKELA

Txomin Gartzandia Goñi

Etxarri Aranazko Udaleko zinegotzia 80. hamarkadan, eta beti prest herriaren alde eta herriarentzat lan egiteko.

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da



Etxarri Aranazko Udala

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

JAIOTZAK

- **Ariane Rollan Lobato**, maiatzaren 29an Urdiainen
- **Valentina Erbiti Alonso**, ekainaren 1ean Egarreran
- **Maia Garcia de Eulate Azanza**, ekainaren 10ean Altsasun
- **Amets Bakaikoa Lanz**, ekainaren 11n Lakuntzan

EZKONTZAK

- **Gaizka Diaz de Garaio Lopez de Zubiria eta Julene Ansotegi Razkin**, ekainaren 12an Bakaikun

HERIOTZAK

- **Benita Etxeberria Uharte**, ekainaren 11n Bakaikun
- **Jose Galban Rueda**, ekainaren 12an Olaztin
- **Candida Lukin Miguel**, ekainaren 15ean Altsasun
- **Txomin Gartzandia Goñi**, ekainaren 16an Etxarri Aranatz

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU ETXARRI ARANATZ
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



'Los Acordes de la memoria' dokumentalaren aurkezpena. UTZITAKOIA

Musika eta artea memoriaren aktibatzailea

Iruñean aurkeztu ondoren, 'Los acordes de la memoria' Josefina Arregin klinikan oinarritutako dokumentala mustuko dute, "behingoz", Altsasuko Iortia kultur gunean. Musikak memorian duen eraginaz hitz egiten du filmak

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Los acordes de la memoria oroitzenari buruzko film bat bezala deskribatu dute sortzaileek. Duela zenbait urte Raul Madinabeitia musikariak eta filmaren ekoizleak musika eta artea erabili nahi izan zituen demenzia eta alzheimer gaixoak laguntzeko. Medikuen atea deitu zituen, baina ez zuten argi ikusten. Ideia zen proiektua Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoan garatzea, eta La Caixa fundazioko eta Kutxa fundazioko dirulaguntzari esker, martxan jartzea lortu zuen. Altsasuko klinikan egindako tailer horiek bideoz jaso zituen, baita Gayarre antzokian egindako ikuskizuna ere, eta zortzi parte hartzaileei eta inguruko jendeari egindako elkarrizketetatik *Los acordes de la memoria* dokumentala sortu dute. Duela zenbait egun Iruñeko Golem zinemetan aurkeztu zuten filma eta datorren ostiralean, ekainaren 25ean, 19:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean mustuko dute.

Madinabeitiak egindako tailerren helburua nagusia zen musika komunitatearen erabilpena demenzia eta alzheimer gaixoei eta inguruko jendeari "ongizate soziala, emozionala eta kognitiboa" hobetzeko. Arte komunitarioko proiektu oso berritzailea

dela azaldu du Madinabeitiak. "Lehenengo aldiz egin da", eta ikerketa luze baten ondorioa izan da. Tailerretan parte hartu duten gaixoak ere ongi pentsatutakoak dira, eta medikuek proposatu zituzten "haiei ongi etortzen zitzaizkielako horrelako terapiak". Vicente Madoz doktorearen edota Arruazuko Ricardo Insausti bezalako puntako zientzialarien laguntza izan dute. Ikuspuntu berritzailea eman diote alzheimer eta demenziaren ikerketari: "Arte eta musika eta burmuinaren arteko erlazioaz hitz egiten du. Memoria musikala beste memoriarik independentea eta indartsuagoa da", eta ez da hondatzen. "Horregatik tailerrera iritsi zen gizon bat ez zela izenaz ezta nongoa zen gogoratzen, baina Chopinaren *Sonata* pianoan jo zuena".

Tailerak

Josefina Arregi klinikan musika metodologia aktiboen bidezko tailerak egin zituen Madinabeitiak eta bere taldeak. Hiru tailer izan ziren: kantu eta koroa, musika inprobisazioa eta mugimendua eta arteterapia eta musika tailerra. Tailerrendako musika instrumentuak zuzenean jotzen zituzten, sortzen duten bibrazioek zerikusi handia dutelako memoriaren aktibatzean. Proiektuaren

beste elementuetako bat musika komunitatearen ideia da; musika komunitatearen barruan egiten dela eta ez modu indibidualen. "Horregatik familiak, zaintzaileak eta abar tailerren barruan sartzen ziren". Beste ideietako bat edozein pertsonak profesionalekin badago musika egin dezakeela da. "Tailerren ondoren izenarekin agurtzen ninduten eta eskerrak ematen zizkidaten. Nikesaten nien beraiei eman behar nizkiela eskerrak, eta esaten zidaten ezetz, gu pertsonak bezala tratatzeagatik, eta ez umeak bezala". Praktika eta terapien bidez memoria lantzen dute, "ez pilulekin". Beste formula batzuk erabili dituzte.

Tailerren ondoren Gayarren ikuskizuna egin zuten. "Esperientzia izugarria izan zen". Ikuskizunaren helburua ez zen "pena" ematea, baizik eta guztiz kontrakoa: "Duintasuna".

Dokumentala

Artearen eta musikaren ahalmeneren berri eman nahi dute *Los acordes de la memoria* dokumentalarekin. Josefina Arregi klinikan egindako lana erakutsi, eta posible dela esan. Ikerketa lanerako grabatutako saioak eta ikuskizunaren ondoren sortu duten ikus-entzunean erabili

dute, Fernando Vera zuzendararen laguntzarekin. Lan izugarria egin duela esan du Madinabeitiak.

Altsasu baloreen jarri nahi izan dute filmarekin ere. "Herriko baloreez ari gara, hemengo jendegarrantzitsuen inguruan". Felipe Lezea Arfe enpresako eta Josefina Arregi klinikako sortzailearen figura erakutsi dute dokumentalean ere familiari elkarrizketa eginez. "Altsasugatik dena eman zuen industria gizona izan zen. Eta, aldiz, Altsasura iristea kostatu da. "Oso gogorra izan da. Ez dut ulertzen Altsasuri buruz ari den lan bat

izanik erakusteko hain interes gutxi erakustea". Dokumentala Iortian aurkeztu nahi zuten, baina udalaren "isiltasuna" jaso zuten. Gayarren aurkeztutako ikuskizunarekin berdina gertatu zela kritikatu du Madinabeitiak. "Altsasuko baloreak gorai-patzen direnean. Herriarekiko errespetu falta iruditzen zait". Dokumentala irabazi asmorik gabeko proiektu bat izan da eta helburua kulturaren eragina erakustea da eta MECNaren barruan dago. Aurrera ateratzeko *crowdfunding* kanpaina egin zuten ere. "Gizarte eta kultur interes handiko proiektu bat da".



BAZTERRETIK

IUNE TRECET OBESO ©

Udarako proposamena

Eta iritsi da kurtsoko azken kolaborazioa. Bero egiten du kanpoan, eta haurrek oporrak oso gertu dituzte, heldu batzuek ere. Udako egun luzeak modu askotan disfrutatu daitezke, baina nik hiru jarduera proposatuko dizkizuet, beti ere teknologia askeekin lotutakoak.

1. Txikipedia (<https://labur.eus/wiki/tikipedia>): Wikipediaren eskutik datorren txokoa da Txikipedia. Bazkaldu ondoren haurrekin lasai egoteko aukera ezin hobea da. Gauza asko ikas daitezke txoko honetan, baina beti modu dibertigarrian. Adibidez, zergatik ospatzen dugu San Joan gaua? Zer lotura du ipar hemisferioko ekinozioarekin? Bitxikeria pila bat ikas ditzakegu etxeko txikienekin batera. Edo mundu biografia pila bat dituzue pixkanaka mundu guztiko pertsona desberdinek egindakoa ezagutu ahal izateko. Nor da Serena Williams? Edo zer egin zuen Mary Read piratak? Gainera, gauzak errazte aldera, mugikorretarako aplikazio bat ere sortu dute, edozein lekutara eraman ahal izateko.

2. Inkscape challenge (<https://labur.eus/inkscape>): Duela hilabete batzuk aurkeztu nizuen Inkscape bektoreetan oinarritutako programa, eta honekin lotura zuzena du

bigarren proposamenak. Marraztea gustatzen bazaizue, Inkscape webgune ofizialean erronkak izaten dira erregulariki. Gai bat aukeratzen dute, eta gaiari buruzko Inkscape sortutako marrazkiak igo behar dira foroan. Orain adibidez "Ipuinak" da gaia. Ez dago saririk, baina irabazlea suertatzeak izugarriko ilusioa egiten du, eta batez ere, udan zehar marrazten jarraitzeko aitzakia da.

3. OSMTracker (<https://labur.eus/OSMTracker>): Joan den urtean data hauetan hiru erronka proposatu nizkizuen, horietako bat Geocachinga zen. Aurten, mapekin jolastu beharrean, mapak sortzeko proposamena ekartzen dizuet. Open Street Maps mapa libre eta kolaboratiboak egiteko mundu mailako proiektu bat da. Mapa hauek edozeinek sor ditzake, nik adibidez, nire herriko denda eta tabernak gehitu nituen. OSMTracker aplikazioarekin oso erraz egiten da, mugikorreko GPS-a piztuta izanik non zauden esango dizu, eta mapetan ez dagoen establezimendu baten aurrean zaudenean, establezimendu mota zein den eta zein izen duen jarrita, lekuan bertan gordeko duzu. Ondoren, etxera iristerakoan, Open Street Mapsen bulkatu behar duzu. Horrez gain, mendiko bideak ere grabatu ditzakezu, zure ibilbidean zehar grabatuz eta ondoren mapan ere bulkatuz, ibilbide mota, txirrindulak joan daitezkeen, eta abar. Horrela, zure inguruan dauden zonalde politak ezagutaraziko dituzu.

Sortzaileei saria

2021. Maria Markotegi eta Nanoipuin lehiaketaren sariak banatu ditu Sakanako Mankomunitateak


Erkuden Ruiz Barroso SAKANA Maria Markotegi eta Nanoipuin lehiaketaren sari banaketa berezia izan da aurtengoa. Pandemiak eragindako egoera dela eta, bigarren urtez 2021. urtean ez da sari banaketa ekitaldirik egin, eta irabazleek etxean jaso dute saria: Sakanako liburu dendetan erabiltzeko 40 eta 120 euro bitarteko txartelak. Lehiaketetan parte hartu dutenek ere oparitxoak jaso dute. Sakanako Mankomunitateko Eus-

kara zerbitzuak antolatzen ditu bi sariketarak. Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak 1.800 euro banatu ditu 26 lanik onenak saritzeko.

Sakanako ikasleei bideratutako sormen lehiaketa da Maria Markotegi, eta helburua euskarazko sormena sustatzea da. Lau sail ditu: booktubea, narrazioa, poesia eta komikia. Aurten 572 lan aurkeztu dira; 296 narrazio sailean, 65 poesia sailean, 37 booktube sailean eta

174 komiki sailean. Lehiaketak bost maila ditu: Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak; 5. eta 6. mailak; DBHko 1. eta 2. mailak; 3. eta 4. mailak, eta Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena. Booktubeak DBH1etik gorako gazteek parte hartu ahal izan dute Youtubean agertzeko gutxieneko adina behar delako.

Toñi Lopezek eta Izaskun Etxeberriak literatura arloan, Joxemari Morcillok eta Olatz Alda-



sorok komiki arloan eta Katrin Gineak eta Aitor Karasatorrek booktube sailean osatu dute epaimahaia.

Nanoipuin lehiaketa euskaltegi-tako ikasleei zein mintzakideei zuzendutako lehiaketa bat da. Hiru maila ditu: lehen mailan A1 eta A2 mailetakoko ikasleek parte hartzen dute; bigarren mailan B1 mailako ikasleek, eta hirugarren maila B2 eta C1 mailetakoko ikasleendako da. Mintzakideek ezagutzaren pareko mailan parte hartzen dute. 67 lan

aurkeztu dituzte; 35 lehen mailan, 22 bigarren mailan eta 10 hirugarren mailan.

Irabazleek Sakanako liburu dendetan erabiltzeko 150 euroko txartel bana irabazi dute. Epaimahaia Monika Etxeberriak eta Garbiñe Petriatik osatu dute, eta Sakanako Mankomunitateak orain arte lehiaketan epaimahakidea izandako Maria Luisa Zelaiaren heriotzagatik atseka-bea adierazi du, baita doluminak eman nahi izan dizkie senide eta hurbilekoei ere.

Maria Markotegi lehiaketaren irabazleak



**LEIRE AGIRRE
ETA JARE
MAIZA**
ALTSASU/
OLAZTI
BOOKTUBEAK
Sasieskola



**MAREN
BAKAIKOA ETA
OLAIA CARABIAS**
ALTSASU
BOOKTUBEAK
Koilarakada bete sekretu



**NAHIA AGIRRE
ETA INHAR
URTEAGA**
ALTSASU/OLAZTI
BOOKTUBEAK
Nur eta dortoken uhartea



**NAHIA
LUMBRERAS
ETA AINHOA
ASTIZ**
ZIORDIA/URDIAN
BOOKTUBEAK
Mehabua



**ABEL
GUERRERO
GOÑI**
ETXARRI
ARANATZ
KOMIKIA I
Meteoritoa



**DANIELA
MIKEO
ZUBILLAGA**
LAKUNTZA
KOMIKIA
Bullyng



**LAIA SUESKUN
HERRERROS**
ALTSASU
KOMIKIA
Trump-en karma



**LEIRE IGOA
UNZILLA**
ETXARRI
ARANATZ
KOMIKIA
Lili eta Igel



**LUR SASIAIN
IRAURGI**
ETXARRI
ARANATZ
KOMIKIA
Super heroien ametsa



RAHIMA GELTI
LAKUNTZA
KOMIKIA
Zaindu zure planeta!



**SAIOA ERIN
HANNIGAN
GOÑI**
ALTSASU
KOMIKIA
Al gara egon batera?



**AITANA
IGOA
NAZABAL**
ETXARRI
ARANATZ
NARRAZIOA
Kaixo, seme



**BEÑAT ETXEBE-
RRIA MARTINIZ**
ALTSASU
NARRAZIOA
Galtzeta Benyiren eta bere lagun bidaia



**EIDER
RAZKIN
ARANGUREN**
ARBIZU
NARRAZIOA
Robot eta txakur lagun minak




**ION
RAZKIN
IGOA**
ARBIZU
NARRAZIOA
Sherpa lapurra



**ULENE
ORELLA
SAN MARTÍN**
ETXARRI
ARANATZ
NARRAZIOA
Bidegurutzia



**JUNE SENAR
ORMAZABAL**
ETXARRI
ARANATZ
NARRAZIOA
Bukatu gabeko arimak



**MAIA
NOVOSELSKY
JAKA**
ARBIZU
NARRAZIOA
Ilunabarraren ostean



**SARAH ARREGI
ORMAETXEA**
ZUHATZU
NARRAZIOA
Sarah eta Ljunaren abenturak



**ANER
JIMENEZ
LEZEA**
ALTSASU
POESIA
Kondena



**ARAITZ
OTXOA
DIAZ**
ALTSASU
POESIA
Horrela bizi naiz



**IKER
ZAMARRON
CANDELAS**
ALTSASU
POESIA
Egunerokoa



**IRAIA
ALLAM
KATARAIN**
LAKUNTZA
POESIA
Lur



**LEIRE
AGIRRE
ALDATZ**
OLAZTI
POESIA
Bizira itzultitako ur tanta



**MADDI
ZUÑIGA
BALDA**
IRURTZUN
POESIA
Barreneko deabruak



**MAIA
RABAZ
DUARTE**
ARBIZU
POESIA
Nire familia

Nanoipuin lehiaketaren irabazleak



**ALICIA
ARMENDARITZ
MURILLO**
ULTZURRUN
2. maila B1



**MIREN
BAJO
PALACIOS**
SATRUSTEGI
3. MAILA B2
eta C1



**NATALIA
SÁNCHEZ
RODRÍGUEZ**
ALTSASU
1. maila A1
eta A2



**NIEVES DE
ESTEBAN
ASTIZ**
ETXARRI
ARANATZ
2. maila B1

"Euskararen erabilera hobetu behar dugu"

Elkartearen diagnosi orokorra egiteko Pikuxar euskal txokoko zuzendaritza batzordeak bazkideen artean galdetegia banatu zuen. Euskarari buruzko galderak egin zituzten ere. Emaizak eskuartean, Elena Balda Sanjuanez azalpenak eman ditu

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

1 Euskarari buruzko inkesta egin zenuten elkarteetan. Zergatik?

Hainbat arlotako informazioa jaso nahi genuen, elkartearen egoera ikusteko. Euskararena izan zen barne informazioa eta komunikazioa hobetzeko asmoz egin genuena. Beti funtzionatzen duzu susmoekin: gehienek ulertzen dute, baina datu objektiborik ez genuen. Hori izan zen abiapuntua.

2 Inkesta bazkide guztiek erantzun zuten?

Saiatzen gara ahalik eta modu errazenean egiten, Whatsapp bidez egiten ditugu. Gustatuko litzaigukeena baina gutxiagok erantzun dute, baina, ongi. 119tik 73 bazkidek erantzun zuten, %61,34.

3 Zein egoera du euskarak Pikuxarren?

%89k ulertzen du euskara. Kopuru potentia da. %81a testu luzeak irakurtzeko gai da eta %87a testu motzak, Whatsappekoak. Datuek euskararen normalizatorako pausoak berres-teko balio dute.

4 Eta erabilera hain handia al da?

%60koa da euskararen eguneroko erabilera. Indarra non jarri behar dugun erakusten du datuak.

5 Zergatik dago ulermenaren eta erabileraren arteko alde hori?

Ohituragatik. Eta horiek ere aldatzen joaten dira. Guraso izaten hasi den 30 urte inguruko jendeak hizkuntza aldatu dute eta euskaraz hasi dira. Guk lau urte daramatzagu lan honetan eta jende askoren hizkuntza ohi-turak aldatzen ikusi dut. Nik jende askorekin gaztelaniaz egiten nuen eta orain euskaraz egi-



Pikuxarreko kideak plaza berrian atseden hartzen. PIKUXAR

ten dut. Euskaraldiaren eragina handia da.

6 Datu horiek nola uzartzen dira elkarte euskaltzale batean?

Pikuxarretik zer espero dut jasotzea, eta zer eman dezaket. Galdera horiek ere egin genituen. Ideiak sortu ziren. Gure asmoa da estrategia planarekin eta gure helburuekin segitzea. Jendeak jasotzea espero duenen artean daude: euskara bultzatzen laguntzea, gehienekin euskaraz erlazioztatzea, euskaraz bizitzeko aukera izatea, gehiago erabiltzea, askok euskara berreskuratzea erantzun zuten. Horretarako, Mintzakide edo ekintzak aipatzen dituzte. Erdaldunek ikasteko asmoa adierazi dute.

7 Erabateko ulermena bermatzeko neurrien bat hartzea aurreikusten duzue?

Datuek erakusten digute zein izan daitezkeen gure helburuak, eta bidea markatzen dute. Datuak apirilean aztertu genituen eta

egoitzaren obra bukaerarekin gurutzatu zaigu eta gelditu dugu. Baina ekintza plana eta helburuak markatuko ditugu.

8 Geroz, bazkideen aldeko jarrerak erraztuko du?

Erantzun dutenen jarrera proaktiboa da. Aldeko jarrerak daude, baina agian pasiboak dira. Bazkide batek erantzun du euskararen alde dagoela, baina ele bitan egiten ez bada diskriminatzen dutela. Beti sinistarazi digute gu garelako diskriminatzen ditugunak. Zergatik egon behar da bere eskubidea nirearen gainetik? Nola ikustarazi jarrera hori duten pertsonen eskubidea dela eta hemen sartu dela. Txip hori aldatzea.

9 Halako inkestarik egin den beste elkarteren bat ezagutzen duzu?

Ez. Baina, zalantzarik gabe, ariketa gomendagarria da. Sentsazioak dituzu. Datu objektiboak izanda, horren gainean hitz egin

ahal duzu. Honetan oinarrituta, hobetu behar duguna, argi eta garbi, erabilera da. Horretarako zer egin dezakegu? Halako plangintza egin dezakezu. Zuzendaritza batzordean batzuk aktak euskaraz bakarrik bidaltzearen aldekoak ziren, eta besteak ele bitan. Jakin behar dugu zenbaterik ez duten ulertzen. Eta ez dira hainbeste. Bidea markatzeko Bai Euskarari ziurtagiria lortu nahi dugu.

10 Irurtzunen hizkuntza errealitatearen isla da zuen elkarteak?

Ez dakit. Irurtzundar kopuru majo bat gara, mugitzen garenak eta gauzak egiten ditugunak gara. Baina ikusten gaituzte eta hainbat gauzatan eragina dugu.

11 Egoitza berria mustutzeaz zarete, ezta?

Astehelenean, lau urte gogorren ondoren. Oztopo pilarekin. Pandemia eta gauza gogorrek tartean. Mundua tabernak itxen ari den momentuan, guk taberna duen elkarte bat zabalduko dugu. Garrantzitsua iruditzen zitzagun elkarteak publikora zabaltzeko bide bat izatea, taberna. Aurreko Pikuxarren nortasuna mantentzea garrantzitsua iruditzen zitzagun. Ahalgin handien ondoren, lortu dugu. Zuzendaritza batzordeko konpromisoa hartu genuen elkarteak arte mantenduko ginela. Kristoren gogoak daude. Hori bai, orain irekiko badugu ere, ahal dugunean benetako mustutze festa egingen dugu.

DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA